

ZERAINGO PAISAIARAKO EKINTZA PLANA:

Zeraingo paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolaketa sustatzeko erreminta



ZERAINGO UDALA

EgileaK:

Asier Galdos
Jakoba Errekondo



Iñigo Moreno (Eguzki Ihintza Ingurumen Zerbitzuak SL)
Xabier Agirre (Eguzki Ihintza Ingurumen Zerbitzuak SL)

1. AURKIBIDEA

1.	AURKIBIDEA.....	3
2.	AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA	6
2.1	Ekintza-planaren bidezko esku-hartze irizpideak.....	7
2.2	Proiektuaren gauzatzeko bidea	9
3.	ZERAINGO PAISIA NATURALA ETA KULTURALAREN ZEHAZTAPENA.....	11
3.1	Zeraingo ikuspegi orokorra	11
3.2	Zeraingo natur eta kultur ondarea	11
3.2.1	Interes komunitarioko habitat eta egungo landaredi aipagarria.....	11
3.2.2	Turismo baliabide eta intereseko eremuak	12
3.3	Ikuspegi azterketa.....	13
3.3.1	Kanpoko ikuspegia	13
3.3.2	Barneko ikuspegia	13
3.4	Paisaia hauskortasun handieneko eremuak nagusiak.....	13
3.4.1	Ikusgarritasun handieneko eremuak	13
3.4.2	Hauskortasun handieneko eremuak	13
4.	EKINTZA PLANA.....	15
I1	Ildo estrategikoa – Mendialdearen garapena.....	18
P1.1	Artzantza eta gaztaren paisaia	18
E1.1.1	Lur-funtsa sendotzea:	19
E1.1.2	Jarduera ekonomikoak uztartzea:	19
E1.1.3	Udalaz gaindiko erakundeekin akordioetara iristea:	19
E1.1.4	Interes komunitarioko habitatak babestu eta berreskuratzea:.....	19
P1.2	Basoaren funtzio-aniztasuna	20
E1.2.1	Lursailak publikotzea:	21
E1.2.2	Bertako basoaren berreskurapena:	21
E1.2.3	Basogintza funtzio-anitza:.....	21
E1.2.4	Zuhaitz lepamotzak babestea:	21
E1.2.5	Baso-larre landa egitura sustatzea:	21
P1.3	Babesguneak zaindu eta balioan jartzea.....	22
E1.3.1	Aizkorri-Aratz Parke Naturalari koherentzia ematea:	24
E1.3.2	Lasurtegiko hezegunea osotasunean izendatzeko pausoak ematea:.....	24
E1.3.3	Kulturari lotutako babesguneen sakontze lana:	24
E1.3.4	Natura eta kultura ikerketak:	24
E1.3.5	Sustapena eta hedapena:.....	25
E1.3.6	Paisaia kulturala babesteko irudia:	25
I2	Ildo estrategikoa – Baserriaren etorkizuna	26
P2.1	Baserriko landa paisaia mantentzea	26
E2.1.1	Aurreko ekimenak sendotzea:.....	27
E2.1.2	Lehen sektorea sustatzeko ekimen berriak antolatzea:	27
E2.1.3	Erosgai eraldatuen merkatua indartzea:	28
E2.1.4	Erosgaiak sustatzea:.....	28
E2.1.5	Baserri paisaia definitu eta karakterizatzea:	28
E2.1.6	Baserri paisaia babestea:	28

E2.1.7 Baserritarren sentsibilizazioa:	28
E2.1.8 Landa eremua baserritarren beharretara egokitzea:.....	28
P2.2 Lur-funtsa sendotzea.....	28
E2.2.1 Kudeaketarako organo bat sortzea:.....	29
E2.2.2 Burgomendiko esperientziaren zabalkundea:.....	29
E2.2.3 Lur-funtsaren balorazio eta etorkizuna:.....	29
E2.2.4 Komunikazio kanpaina:.....	29
I3 Ildo estrategikoa – Herrigunea.....	30
P3.1 Herri kaskoa paisaian txertatzea	30
E3.1.1 Seinaleztapenaren berrikuspen eta eguneratzea:	31
E3.1.2 Ondarearen inbentarioa:.....	31
E3.1.3 Ondarea mantendu eta berreskuratzea:	31
E3.1.4 Herriguneko paisaiaren mantentzea:	31
E3.1.5 Herri lorazaintza herritarrengana helaraztea:.....	31
P3.2 Arau Subsidiarioko isla	31
E3.2.1 Intereseko eraikuntza guztiak Arau Subsidiarioetan jasotzea:.....	32
E3.2.2 Herriko jardunbide egokien azterketa eta babesia:.....	32
E3.2.3 Seinaleztapenaren bateratze azterketa:	32
E3.2.4 Etorkizuneko eraikuntza pentsatu eta jasotzea:.....	32
E3.2.5 Paisaia Kulturala irudia sortzea:	33
E3.2.6 Transizio guneen garapena antolatzea:.....	33
E3.2.7 Ekintza Plana Arau Subsidiarioen ardatz izatea:	33
P3.3 Herritarren zerbitzuak asetzea	34
E3.3.1 Turismoan oinarrituriko enplegua sustatzea:	35
E3.3.2 Herrian dauden zerbitzuak mantendu eta ugaritzea:	35
E3.3.3 Biomasa energia garatzea:.....	35
E3.3.4 Energia berriztagarriak sustatzea:	35
E3.3.5 Energia aurrezte eta herriko baliabideak erabiltzea:.....	35
I4 Ildo estrategikoa – Zerain Paisaia Kulturala	36
P4.1 Paisaira hurbiltzeko ibilbideak sustatzea.....	36
E4.1.1.- Bideen mantenu-lanak:.....	38
E4.1.2.- Paisaiaren adierazpenerako azpiegiturak egoera onean mantentzea:	38
E4.1.3.- Balizaia eta markazio egokiak bermatzea:	38
E4.1.4.- Ibilbideak izan ditzakeen beharren azterketa:.....	38
E4.1.5.- Herrimugak zehaztea eta geografikoki kokatzea:	38
P4.2 Jarduera ekonomikoen arteko elkarlana	39
E4.2.1 Produktu turistikoak hobetu:	39
E4.2.2 Baserri adieraztegi sarea sortzea:	39
E4.2.3 Jarduerak uztartzeko produktuak sortzea:	39
E4.2.4 Produktuen jendarteratzea:.....	39
P4.3- Zeraingo paisaiaren bioaniztasuna jendarteratzea.....	40
E4.3.1.- Paisaiaren balorean eta bioaniztasunean oinarritutako ekosistemaren emana areagotzeko ikerketak eta ekimenak sustatzea:.....	41
E4.3.2 - Zerain Paisaia Kulturalaren ezagutzan sakontzeko ikerketak egitea:.....	41
E4.3.3.- Jendarteratze eskuorri eta materialen edizioa:	41
E4.3.4.- Unitate didaktikoak prestakuntza lanak:	41
P4.4- Zeraingo paisaia kaltetzen duten eragin negatiboak saihestea.....	41
E4.4.1.- Eremu zahurgarriak identifikatu eta karakterizatzea:	42
E4.4.2.- Zahurgarritasuna gutxitzeko neurriak hartzea:	42
E4.4.3.- Babes irudietan eragin antropikoetatik babesteko oinarriak jartzea:.....	42
E4.4.4.- Eragin antropikoetatik babesteko akordioetara iristea:	42
E4.4.5.- Lur-zaintzailatza:	42

5. ZABALKUNDERAKO ETA ETORKIZUNERAKO PARTE-HARTZEA.....	44
5.1 Usadiozko parte hartzea	44
5.2 Parte hartzea presentziala.....	44
5.3 Online parte hartzea	44
5.4 Prozesuan zehar jasotako ekarpenak.....	45

2. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Zerain Euskal Herriaren bihotzean dago; Gipuzkoaren hegoaldean, Arabako eta Nafarroako mugetatik oso gertu. Aizkorri mendiaren itzalpean, Segura, Mutiloa, Zegama eta Legazpi ditu mugatzat eta hiriburuetatik gertu dago: Donostia (50 km), Gasteiz (70 km), Bilbao (85 km) eta Iruñea (75 km).

Goierriko 18 udalerrietako bat dugu. Hiri eta baserri giroa elkarrekin bizi dira, baina garapenak ez ditu ezabatu iragan aberats baten aztarnak. Sustrai sakoneko usadio zaharrak, monumentu megalitiko ugariak, iraganeko eraikin nobleak, gun naturalak, edertasun paregabeko paisaiak...

Honen guztiaren abiapuntuan erliebea eta landaredia izan dira. Erliebeari dagokionez, orokorrean, forma borobildu eta leunek osatzen dute, Aizkorriko tontor harkaitzuek sortzen dituenak salbuespenak izanik. Honen eraginez, kontrastez eta kolore mosaikoz osaturiko paisaia bistaratzen da.

Erliebea estaliz landaredia dugu, izan ere, udalerraren gehiengo zabala zuhaitz eta zelaiek betetze baitute. Aizpea mendian landare formazio ezberdinen arteko mugek oso forma irregularrak dakartzate paisaiara, eta Oamendikoeak, aldiz, forma zuzenak, bertan pinudiak nagusitzen baitira. Horrez gain, batez ere azken mendi honetan ugaritzen dira abeltzaintzarako erabiltzen diren lurrak, nahiz eta baso landaketak nagusi diren. Aipatzekoa da azken urteetan Zeraingo herria bertako hostozabalen azalera berreskuratzeko ahaleginetan dabilela, bertako espezieekin landaketak eginez.

Jakina da Zerain bezalako nekazal kutsuko herri txikiak jendegabetzen eta husten ari dira. Honexegatik, Zeraingo herria, bertako ondare naturala eta kulturala oinarri duen etorkizun ekonomiko iraunkorra antolatzen ari da Zerain Paisaia Kulturalaren baitan.



Guzti honen sekretua herriaren etorkizun sozio-ekonomikoa bertako berezko baliabideetan oinarrituz sortzean datza: aipatu kultura eta natura ondarea eta paisaia kulturalaren baliabideak zaindu eta indartuz, batik bat. Bide honetan ondare hauek ezagutu, berreskuratu eta balioetsi egiten dira, eta eman ditzaketen etekinak bertako ekosisteman, gure lurraldean eta gure jendartearen genditza sustatzen da.

Lurraldearen neurrira asmatu-iriko ustiaketa iraunkor hau, kalitatezko nekazaritza produktuak ekoiztera eta hirugarren sektoreko zerbitzu turistiko egokien eskaintzara zabaltzen da, bata bestea elikatu eta zirikatzeko duelarik.

Hirugarren hanka, Zerainek urtean jasotzen dituen 20.000 bisitariak osatzen dute. Hauek dira Zeraingo natura eta kultura bisitatzeko baliabideak erakarririta hurbiltzen direnak, eta Turismo bulego eta dendatik hasiz, herria bisitatu Zeraingo marka duten produktuak etengabe "etxean" bertan erosten dituztenak.

Nekazaritza abiatuta eta paisaiaren diseinua lantzeko garaian, gure kezka kulturalak izugarritzeko eragina du. Herri guztienak bezala, gure herriaren bizikera eta bizi duen lurraldearen historia batera doaz. Gure lurretan gure kultura guztiak daude, gure amaren amaren amak pentsatu eta egiten zuena barne. Hau dela eta guk sortu, landu, eratu, sustatu egiten ditugun paisaia guztiak kulturazkoak dira; estetika hutsetik urrun. Ez gara ikuskizun soila diren paisaia bertan gozo gelditu zaleak. Paisaia lurraldearen antolaketa da, ekonomia da, hirigintza da, bizi kalitatea da, iraunkortasuna da, auzolana da, politika da... paisaia herria da.

Honen ildora, ZERAIN PAISAIA KULTURALA da Zeraingo etorkizuneko lerro guztiak biltzen dituen proiektua; Natura, kultura eta jendertaren paisaia uztartuta kalitatezko nekazaritza produktuak sustatu eta bertako ondarea (naturala eta kulturala) berreskuratu eta ikusgai etengabe jarri, herria sortzen duen egitasmoa.

"ZERAINGO PAISAIARAKO EKINTZA PLANA" udalerriko paisaiaren kudeaketa eta antolamendurako esku-hartze tresna gisa sortu da. Honetarako, Zerainen hain ohikoak diren bilera ireki eta parte-hartzaileak izan dira oinarri, hemen adostu baitira planean barneratu diren ekintza eta ildo nagusiak. Honen guztiaren helburu, Zeraindarren egunerokotasunean txertatuko den plangintza aurrera eramatea izango da, zeinaren baitan, ingurumen zaintza, ekonomia, artzantza, baso-kudeaketa, turismoa eta hiri antolakuntzan eragina izango duen.

2.1 Ekintza-planaren bidezko esku-hartze irizpideak

Testuinguru honetan, Paisaiaren Ekintza Planaren esku-hartzea egituratzeko lau irizpide hartu dira oinarritzat eta hurrengo lerroetan deskribatzen dira.:

A.- Azpiegiturak direla-eta aipatu eremuen gaineko eragina (komunikazio-bideak, telekomunikazioak, antenak, parke eolikoak...).

Zeraingo udalerria alderik-alde (mendebaldetik-ekialdera) zeharkatuko du Red Electrica Españolak egin asmo duen Deikaztelu-Ezkio goi tentsioko linea berriak. Linea honek bertako biztanleentzako sortuko dituen arazoez gain, paisaian izugarritzeko ebakidura bat sortuko du. Izan ere gaur egun Goierriko landa paisaia eredugarria osatzen duen ingurune honek bere balio eta identitate nagusia galtzear ditu. Zerainen Barbari auzoa izango da kaltetuena, Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren bista onenetakoa dagoen tokia, eta artzantza paisaia nabarmena.

B.- Paisaia arraro edo galzorikoa, singularra, hauskorra edo adierazgarria (hirien profila, mendien gailur-lerroa, begiratoki diskordanteak...).

Zeraingo udalerrian nonahi landa eremuko paisaia erakusgarri eta eredugarria ageri da: basoak, belardiak, fruitu arbola eremuak, sail arteko zuhaixka- edo zuhaitz-hesiak, baserriak, larreak, baratzeak, soroak eta abar. Eremurik garaienak ekialdean kokatzen dira, Legazpirekin mugan eta tontorrik garaiena Arripillaeta da, 868 m-rekin. Udalerriak behera egiten du ekialderantz eta, bertan, herrigunea eta lursail emankorrenak topatzen dira, baserriari lotutako paisaia sortuz. Iparraldean Aizpeako auzoa kokatzen da eta Hegoaldera Barbari.

Hain zuzen, Barbaritik herrigunea eta Txindoki uztartzen diren ikuspegi ezinhobea dugu, herriak duen kokapen estrategikoaren adierazle. Bestetik, ezin ahaz dezakegu Idiazabalgo

mendietatik eta Seguratik Zeraingo kaskoak Aizkorri-Aratz mendilerroaren oinean eratzen duen argazkia paregabea.

Aizkorri-Aratz Parke Naturalak pisu handia du herrian eta bertan txertatzen da Zeraingo paisaia modelatzen duen Arripillata-Oamendi-Elurtzain-Arantzadieta-Irupagoeta-Ameztizabal-Praileaitz-Danbortxiki-Muñain-Muñogaingo haitza-Muñainbekoa-Liztormenti mendilerroa. Honen baitan kokatzen dira besteak beste Oako monumentu megalitikoak, Aizpuruko gaina, Legazpi aldera ikuspegi bikaina eskaintzen duen Txoritegiko haitza eta Aizpeako meategia.



Zeraindarren paisaia bakana eta berdingabea da AIZPEAKO MEATEGIA eta benetako paisaia-altxorra. Berezko duen balorea kulturaren eta naturaren ikuspegitik jasoa eta babestua dago: Aizpeako meategia Kultur Monumentu Multzoa izendatuta dago, Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko mugen barruan dago eta babestutako Lasurtegiko Hezegune eremua ere bertan da. Kultur Monumentu Multzoa ere baden Larraondoko Zerrategia ere Aizpeako Meategitik bertan dago.

Elementu hauek guztiak herritarrentzat eta bisitari ororentzat zabalik eta, bai turistikoki bai didaktikoki, bisitagarri daude eta gaur egun Zeraindarren IDENTITATEAREN eta AUTOESTIMUAREN parte nagusi dira.

D.- Herritarrek begi-bistan dituzten aldeak izatea (lurraldeko zona garaiak, eszenako hondoa...).

Zeraingo erdigunea muino batean dago, eta Segura, Mutiloa eta Liernitik, nahiz Oria bailaratik nabarmen ageri da. Gune hauek zeharkatzen dituzten errepide askotako toki ugaritatik ikusgarria da Zerain herrigunearen aldeko paisaia: Gi-2637, Gi-3520, Gi-3261, Gi-3262, Gi-3571, Gi-3572, Gi-3573, Gi-3540, Gi-3381, Gi-3352, Gi-3371, Gi-3372 eta Gi-2133.

Ez dago alferrik bertan kokatua, Aralarko Parke Naturala eta Aizkorri-Aratz Parke Naturala, bien arteko Goierriko goi aldea ikusteko balkoi panoramiko bat (Ostatuko Plazan). Goierriko Paisaia oso eredugarria eta hauskorra osatzen du herri inguru honek. Zeraingo herri kaskoa eta bere landa eremua eta basoak bai Aizkorri mendi zerraren eta Txindoki eta Aralarren paisaiaren parte dira.

E.- Eremu funtzionalaren identitatea osatzeko erabakigarria izatea (sinboloak, irudi esanguratsuak, identitate-elementu espezifikoak...).

Zeraingo paisaia oso ezaguna da Goierri mailan, eta goierritarrek eskualdeko turismo sustapenetan Zerain ezinbesteko altxorra da. Gaur egun Zeraingo landa paisaia eta herri kasko eredugarriak eta Aizpeako Meategiak Goierri aldeko eremu funtzionaleko identitatearen parte dira.

Era berean, meategietako kiskaltze labe, burdinbide, meak eta beste elementu desberdinez gain, bereziki aipagarriak dira Oako harrobia, Txorietegiko haitza eta honi lotutako istorioak, Burgomendiko tontorra berezia bezalako Gailurrak Babesteko Eremuak, San Blaseko ermita e.a.

2.2 Proiektuaren gauzatzeko bidea

Irizpideak jarraituz ebatzi den Zeraingo Paisaiarako Ekintza Plana idazteko lanak jarraian deskribatzen diren hiru hanka nagusi ditu:

1. Egungo informazioa bilatzea eta ingurunearen ezagutza sakontzea
2. Herritarren parte-hartzea sustatzea.
3. Ekintza plana idatzi eta jasotzea

1.- Egungo informazioa bilatzea eta ingurunearen ezagutza sakontzea

Lan taldeak udalerriko paisaiaren balio fisikoa aztertzeke, gaur egun eskuragarri dagoen informazioa bildu eta gurutzatu du.

Batetik, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sortutako mapak (landaredia, paisaia, monumentuak, parkeak eta abar) ,idazkiak eta legediak (monumentu, parke natural, hezegune eta abar) ikustatu dira.

Bestetik berriz, Udalak berak azken urteotan egindako lan sakonari esker eskuragarri dituen txosten eta lan espezifikoa ere lan taldearen esku izan dira. Hauen artean Aizpea Meategiko landarediaren azterketa, Lasurtegi hezeguneko azterketa espezifikoa, Udalerriko etnografia balioen azterketa, Meategitako Plangintza Zuzendaria eta abar.

Lan taldeak, plano desberdinak sortu ditu paisaiaren kulturalaren elementu desberdinak adierazteke, besteak beste, natur eta nekazal balioak, kultur eta historia elementu aipagarriak zein babes eremuak adierazteke. Honetaz gain, Udalerriko eremu ezberdinekiko ikuspen-analisiak egin ditu paisaiaren haustortasuna kontuan hartzeke. Analisi hauek paisaia nabarmenenak duten eragina azaltzen dute eta lanerako zein analisirako material aproposa osatzen dute.

2.- Herritarren parte-hartzea sustatzea

Zeraingo herriaren eguneroko jardunean oso txertatuta dago parte-hartzeke gaitasuna. Herriaren eguneroko jendarte lanetan bezala udal jardueran ere nahitaezko lan eredia da. Honen ondorio zuzena dira Zerain Paisaia Kulturalak azken urte hauetan eman dituen emaitzak: ondare naturala eta komunitatea paisaia kontzeptuan bildu eta barneratzea, ondare naturala eta kulturala babestea eta sustatzea, herri lurren garrantzia, lurrari lotutako etorkizun ekonomiko iraunkorra bultzatzea, eta abar. Dagoeneko honela egin dira herriko mapa toponimikoa eta egun bideratuta dagoen herriko mugen historia eta bilakaera aztertu eta ikertzeke herritarren lantaldea.

Herritarren parte-hartzea eta dinamizazioa sustatzeko, herritarrekin bildu da lan-taldea eta Zeraingo Paisaiarako Ekintza Planeko dokumentuak eskuragarri jarri ditu udaletxean zein webgunean. Honetarako herriko web orrian, atal bat sortu da eta sortutako material guztia eskuragarri jarri da blog baten laguntzaz.

3.- Ekintza plana idatzi eta jasotzea

Paisaia kulturalarekin erlazionatuta dagoen informazio bilketa eta sortutako ezagutza guztian

oinarriz, jendarteratze eta parte-hartze prozesua egin ondoren, 4. atalean deskribatzen den ekintza plana ebatzi da, non, jendearen eta teknikarien ikuspegia erabat uztartu diren.

Ekintza plan hau izango da Zeraingo Paisaiaren babes, kudeaketa eta antolaketa gidatuko duen erreminta. Natur, kultur, historia eta ekonomia jardueren ondare material eta inmaterialak modu bateratuan antolatzeko tresna gisa eraiki da, etorkizuneko Zeraingo Paisaia pentsatu eta lantzeko asmoz.



3. ZERAINGO PAISIA NATURALA ETA KULTURALAREN ZEHAZTAPENA

Zeraingo Paisaiaren Ekintza Plana zehazteko garaian, zeuden aurrekari guztiak Informazio Geografikoko Sistemak erabilia antolatu eta aztertu dira. Honen guztiaren asmoa, herriko paisaia kulturalaren elementu eta eremu garrantzitsuenak ezagutzeaz gain, hauskortasun maila handiena duten eremuak definitzea izan dira, bai ikusgarritasun handia dutelako eta baita balio paisajistiko handia dutelako (natura elementuak, kultur ondarea, hábitat boitxiak, herritarrek osos gustuko duten gune bat delako eta abar). Honen guztiaren emaitza gisa, I. Eranskinean agertzen diren 16 plano sortu dira Zeraingo paisaia ondarea hobe ulertzeko asmoz. Jarraian kartografian oinarritutako azterketa azaltzen da hiru ataletan bereizturik:

- Zeraingo ikuspegi orokorra: Zeraingo paisaiaren adierazgarri guztien isla.
- Zeraingo natur eta kultur ondarea: Berez dauden balioak adierazteko baliaigarria.
- Ikuspegi azterketa: Herri barnetik eta kanpotik, paisaian eragin gehien duten eremuan nolabait mugatuz

Kartografia azterketa honen ondorio gisa, eragiteko behar handia duten Zeraingo paisaia hauskorrenak identifikatu dira.

3.1 Zeraingo ikuspegi orokorra

Zeraingo paisaiaren kudeaketa kulturalaren ikuspegia garatzeko, lurraldeak jasotzen dituen intereseko elementuak islatzea oso garrantzitsua da. Eranskinean agertzen den 1. planoan, alde batetik, Interes Komunitarioko Habitatak eta egungo landaredi aipagarria zehazten dira eta, bestetik, turismo balia bideak, intereseko eremu zen elementuak eta herrian barrena doazen ibilbideak.

Ikuspegi orokor honetan, herriaren eremu oso zabal batean intereseko eremuak daudela ikus dezakegu modu abstrakto batean. Berdez, intereseko habitat eta landaredia azaltzen da, non, natur eta kultur jatorria duten era guztietako landare formazio aipagarriak zehazten dira.

Gorritz bildutako eremuak, Aizpea Meategiko Monumentu Multzoa, Aizkorri-Aratzeko Parke Natural, Lasurtegiko Hezegunea, Presuntzio Arkeologikoko Eremuak eta babes irudiak duten zein ez duten bestelako ondarea dago jasorik.

Era berean, ibilbide interesgarriak lerro gorritz adierazita agertzen dira, besteak beste, Donejakue bidea, ibilbide botanikoak, Lasurtegiko ibilbidea, minatako bideak e.a. Honetaz gain, paisaiari lotutako gainontzeko intereseko natur eta kultur elementu guztiak jasotzen dira.

3.2 Zeraingo natur eta kultur ondarea

Atal honetan, I. Eranskinean azaltzen diren 2. eta 3. planoen azalpena egingo da, non, Zeraingo natur eta kultur ondarea deskribatzen diren. Honen baitan, babes irudiak dituzten elementu eta eremuak jasotzeaz gain, paisaiaren kudeaketa kulturalaren ikuspegitik interesgarriak diren elementuak ere jaso dira, besteak beste, Interes Komunitarioko habitatak, larre eta segabelardiak, babestu gabeko ondare kulturalaren adibideak e.a. Hurrengo azpiataletan, planoetan jasotakoa islatuko da.

3.2.1 Interes komunitarioko habitat eta egungo landaredi aipagarria

2. planoan ikus daitekeen bezala, baso-landaketak ugariak badira ere, landarediaren

ikuspegitik interesgarriak diren oso eremu zabalak ikus ditzakegu. Aipagarria da herrigunean, Aizpe auzoan eta Barbari auzoetan dauden baratza eta segabelardiak, hauen artean, gehientsunak, Interes Komunitarioko Habitat bezala jasota daude.

Era berean, udalerraren azalera handi bat harizti azidofilo edo harizti-baso misto atlantikoa da baina pagadiak, ameztiak eta haltzadiak ere nabarmentzekoak dira, batez ere, azken biak Interes Komunitarioko Habitat bezala jasota baitaude eta haltzadia lehentasunezkoa da gainera. Interesgarriak dira ere, baso hauen fase andeatuak, berreskuratze prozesuan sarturik baitaude.

Azkenik, Oamendiko mendialdean, Interes Komunitarioko Habitat desberdinen eremu nahiko zabalak topa ditzakegu. Aipagarrienak lehentasunezko habitatak izateagatik, Belardi lehor seminaturalak eta substratu kalkareotako sastraka-eiteko formazioak eta Nardus-en formazio belarkarak dira.



3.2.2 Turismo baliabide eta intereseko eremuak

3. planoan babes irudiak dituzten natur eta kultur elementu eta eremuak jasotzeaz gain, paisaiaren ikuspegitik interesgarriak direnak adierazi dira. Gainera, paisaia kulturalaren adierazpenerako hain baliagarria den ibilbide sarea ere islatu da, ibilbide mota bakoitza bereiztuz. Ikus daitezkeen bezala Zerainek duen ondare eta ibilbide azpiegitura paregabea da eta udalerriko balio paisajistiko guztiak erakusgai jartzen ari da poliki poliki.

Kulturari lotutako babes eremuen artean, Aizpea Meategiko Monumentu-Multzoa, Monumentu Megalitikoak desberdinak, Donejakue bidea eta bere baitan dagoen Monumentu Multzoa (Zerain-Segurako galtzada, Jasokunde Ama Birjinaren eliza, Olabide baserria, Bolatokia, San Blas basiliza, Udaletxea, Zabalegi hilarria eta Zeraingo herri-gunea) daude besteak beste.

Ibilbideei dagokionean, Donejakue bidea, Labeen giran ibilbidea, Ibilbide bokanikoak, Ibilbide aproposa, Hezegunean barrena ibilbidea, Trenen ibilbidea, Meategietako ibilbide eta bideak eta bestelako ibilbide tematikoak.

Azkenik, mota desberdinetako hainbat elementu desberdin ere zehaztu dira: Tumuloak, lixibalekuak, karobiak, iturriak eta ibilbide botanikoetan aipatutako paisaiari lotutako beste interesguneak.

3.3 Ikuspegiaren azterketa

Zeraingo udalerraren barruan ikusgarria den eta ondorioz hauskortasun handiago izan dezakeen eremuak zeintzuk diren zehazteko, behatoki desberdinak aukeratu dira, inguruko puntuetatik Zeraingo zein eremu ikusten dena eta herri barrutik zer den ikusten dena ezagutzeko. Behatoki hauen hautaketa prozesua herritarrekin elkarlanean aukeratu dira.

3.3.1 Kanpoko ikuspegia

Kanpotik ikusgarriak diren eremuak ezagutzeko hiru behatoki aukeratu dira: Arripiletako tontorra, Segurako atea eta Lierniko gaina. 4., 5. eta 6. planoetan, aipatu behatoki bakoitzetik ikus daitezkeen adierazten da eta 12. planoan guztien batura azaltzen da.

Azterketa honen ondorioz, kanpotik ikusgarrien diren eremuak Otatza eta Barbari auzoak, kasko ingurua eta mendien gailurrak dira. Aldiz, ikusgarritasun txikiena dutenak erreka desberdinen bailara hondoak dira.

3.3.2 Barneko ikuspegia

Barneko ikuspegiak aztertzeke aldiz, 5 plano egin dira, hainbeste behatoki zehaztuta. Hautatu diren lekuak paisaia behatzeko interesgarriak diren guneak izan dira, zehazkiago, Udaletxeko aparkalekua, San Blas baseliza, herriko plazan, Meategiaren adieraztegi aparkalekua eta Otatzatik Barbarira doan errepidea. Puntu hauen aukeraketa, orokorrean, herriaren behatoki edo ikuspegi aipagarria eskaintzen dutelako aukeratu dira baina Aizpea Meategiko adieraztegi adibidez, bailara hondoan egonda ere, 20.000 bisitari izaten ditu urtean eta hango paisaia garrantzia handikoa da. Informazioa hau guztia 7., 8., 9., 10. eta 11. planoetan ikus daitezke. Puntu hauek guztiak, duten

Behatoki hauek guztiek eskaintzen duten ikuspegia aztertzen badugu, kanpotik ikusten denaren nahikoa antzekoa da. Hala ere, zenbait mendien magalak edo erreka hondoak batean gehiago ikusten dira bestean baino.

3.4 Paisaia hauskortasun handieneko eremuak nagusiak

Paisaiaren hauskortasun eremuak definitzeko garaian, bi eragiketa desberdin egin dira. Lehena, bai kanpoko zein barruko behatokitatik ikusgai diren eremuak identifikatzea izan da, ikusgarritasun handiagoa duten eremuak identifikatzeko. Ondoren, herriak dituen intereseko eremuekin (2. eta 3. planoetan adierazitakoak) alderatu dira, paisaia hauskortasun handiagoa dutenak ezagutzeko.

3.4.1 Ikusgarritasun handieneko eremuak

Ikusgarritasun handieneko eremuak 14. planoan zehazten dira eta hautatutako 8 behatokitatik zenbatetatik ikusgai diren zehazten da. Behatoki guztietatik ez da eremurik ikusten, beraz, ikusgarritasun handieneko puntuak 7 behatokitatik izango dira ikusgai.

Eremu ikusgarrienak beraz, herri bueltako landa eremuak, goi mendiak eta Barbari dira. Honi Aizpekao meagiak gehitu behar zaizkio jasotzen duen herritarren eta kanpotarren bisitengatik.

3.4.2 Hauskortasun handieneko eremuak

Esan bezala, 15. planoan paisaiaren hauskortasun handieneko eremuak zehaztu dira. Horretarako, 14. planoan adierazten den ikusgarritasun handieneko eremuak, 2. eta 3. planoetan adierazi diren natur eta kultur eremu interesgarriekin gurutzatu dira eta paisaiaren ikuspuntutik hauskortasun handiena duten eremuak islatu dira.

Plano honetan ikus daitekeenez, ikusgarritasun handiko eremu gehienak hauskortasun handikoak dira, paisaiaren ikuspuntutik Zeraingo herriak intereseko eremu zabalak baititu. Salbuespenak, mendi eta muñoetan dauden baso-landaketak, bereziki, Unamendi eta Gaztelumuño inguruan, Otaño, Zabarain eta Aizpuru mendialdean. Hala ere, eremu hauetan hauskortasun handiko eremuak daude. Era berean, lehen aipatu bezala, Aizpeako Meategia ere hauskortasun handiko eremu gisa adierazi da eta honekin batera, hainbesteko eraginik izan gabe, Larraondoko zerrategia dugu.

16. planoan, zehazki hauskortasun handiena duten eremuetan jasotzen diren eremu eta elementuak jasotzen dira.

ONDORIOZ, ZERAINGO PAISAIAREN EKINTZA PLANA ABIARAZTEKO LEHENTASUNA IZANGO DUTEN PAISAIA KULTURALAREN ONDARE ETA EREMUAK HURRENGOAK DIRA: OTAÑOARTE, ZABARAIN ETA AIZPURUKO MENDI INGURUAK DIRA, UNAMENDI, GAZTELUMUÑO, AMEZTIA MENDIAK, GOROSTIZUMENDIKO LANDA EREMUA, MUÑOAIN, ILURTZAIN ETA IRUPAGOETAKO TONTORRAK, BARBARI AUZOA, PAGOSASI, LARRANZABAL, BARRENZABAL, LATXE, KASKOA, BURGOMENDI ETA IRUGARATEGAIN INGURUAK.



4. EKINTZA PLANA


Haur, gazte eta heldu, emakume zein gizon, herritar guztiak Zerain Paisaia Kulturalaren osagai eta eragile dira. Mendeetan zehar herriak lehen sektorean oinarri izan badu ere, harri eta mineral erauzketak sekulako eragina izan du historian zehar. Honetaz gain, Donejakue bidea herrian barrena joateak, Zerainek duen eta izan duen garrantzia estrategikoa adierazten du.

Jarduera honek guztiak, ondare natural, kultural eta inmaterial paregabea utzi du herria eta herritarra honen jabe izanik, berau baliatu eta jendarteratzeko bideak zabaldu dituzte, herritarrek euren oinordetza balioan jartzeko eta turismoaz baliatuz, jarduera ekonomiko berriak abiarazi eta egonkortzeko. Finean, Zerain Paisaia Kulturala natura, kultura, ekonomia jarduera eta jendartea uztartuko dituen herri ekimena da, zeinaren baitan, Zeraindarren parte-hartzea ezinbesteko ardatza da.

Urteetan zehar bai Zerainen zein Euskal Herriko beste udalerrietan garatu diren parte-hartze ekintza planetako esperientziak oinarritzat hartu dira, besteak beste, Tokiko Agenda 21en ekintza planak. Ondorioz, prozesua 3 fase nagusitan banatuko litzateke:

- Abiaratzea: Eragile guztien sentsibilizazioan eta interesean oinarrituriko erabakia hartu ondoren, ekimenaren norabidea definitu eta bideratzeko modua.
- Diseinua: Egungo egoera ezagutuz, etorkizunerako proiektzioa egitea.
- Ezarpena: Behin helburuak finkatuta eta ekintza plana definituta, ekintza hauek abiarazi eta kudeatu behar dira.

Honen guztiaren zikloa borobiltzeko, berrazterketa egin beharko da prozesua eta emaitzak ebaluatu asmoz.



Prozedura honen guztiaren ardatza herritarren parte-hartzea denez, ekintza plan honetan berebiziko pisua du, batik bat, Zeraingo herriaren garapenerako ardatza den Zerain Paisaia Kulturala zehazteko garaian, urteetan egin diren parte-hartze prozedurak barneratzen baitira. Era guztietara, herritarrek finkatutako helburuak betetzeko proposatuko diren ekintzak herritarrei azaldu eta euren ekarpenak jasoko dira partaidetza prozeduran jarraituz.

Ekintza plana zehazteko garaian, hiru izan dira emandako hurratsak eta jarraian zehazten dira:

1. Diagnostikoa egitea – Paisaiaren eta paisaia-dinamiken azterketa burutzea.
2. Lortu nahi diren paisaiaren kalitate-helburuak zehaztea.
3. Ekintzak definitzea – Jarduketa-programa egituratzea.

Dokumentua egituratzeko garaian, lehenik eta behin, paisaia ekintza plan honen ildo estrategiko nagusiak definitu dira, lau guztira:

1. Mendialdearen garapena: Orokorrean, garaieran dagoen eta jendearen presio txikiena jasaten duen udalerraren eremua.
2. Baserriaren etorkizuna: Barreiatutako baserri paisaia pentsatu eta mantentzea
3. Herrigunea: Herriko kaskoari lotutako paisaiaren alderdiak.
4. Zerain Paisaia Kulturala: Aurreko atal guztiak elkarlotuko dituen amarauna.

Ildo estrategiko hauetako bakoitzak programa desberdinak hartzen ditu kontuan, zeinaren baitan, egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa, kalitate helburuak eta ekintza desberdinak jasoko diren. Guztira, 4 ildo estrategiko hauen baitan, 12 programa eta 55 ekintza barneratzen dira. Atal honen ulermena errateko askoz, ekintza planaren laburpen eskematikoa zehazten da hurrengo lerroetan:

I1 Ildo estrategikoa – Mendialdearen garapena

P1.1 Artzantza eta gaztaren paisaia

E1.1.1 Lur-funtsa sendotzea:

E1.1.2 Jarduera ekonomikoak uztartzea:

E1.1.3 Udalaz gaindiko erakundeekin akordioetara iristea:

E1.1.4 Interes komunitarioko habitatak babestu eta berreskuratzea:

P1.2 Basoaren funtzio-aniztasuna

E1.2.1 Lursailak publikotzea:

E1.2.2 Bertako basoaren berreskurapena:

E1.2.3 Basogintza funtzio-anitza:

E1.2.4 Zuhaitz lepamotzak babestea:

E1.2.5 Baso-larre landa egitura sustatzea:

P1.3 Babesguneak zaindu eta balioan jartzea

E1.3.1 Aizkorri-Aratz Parke Naturalari koherentzia ematea:

E1.3.2 Lasurtegiko hezegunea osotasunean izendatzeko pausoak ematea:

E1.3.3 Kulturari lotutako babesguneen sakontze lana:

E1.3.4 Natura eta kultura ikerketak:

E1.3.5 Sustapena eta hedapena:

E1.3.6 Paisaia kulturala babesteko irudia:

I2 Ildo estrategikoa – Baserriaren etorkizuna

P2.1 Baserriko landa paisaia mantentzea

E2.1.1 Aurreko ekimenak sendotzea:

E2.1.2 Lehen sektorea sustatzeko ekimen berriak antolatzea:

E2.1.3 Erosgai eraldatuen merkatua indartzea:

E2.1.4 Erosgaiak sustatzea:

E2.1.5 Baserri paisaia definitu eta karakterizatzea:

E2.1.6 Baserri paisaia babestea:

E2.1.7 Baserritarren sentsibilizazioa:

E2.1.8 Landa eremua baserritarren beharretara egokitzea:

P2.2 Lur-funtsa sendotzea

E2.2.1 Kudeaketarako organo bat sortzea:

E2.2.2 Burgomendiko esperientziaren zabalkundea:

E2.2.3 Lur-funtsaren balorazio eta etorkizuna:

E2.2.4 Komunikazio kanpaina:

I3 Ildo estrategikoa – Herrigunea

P3.1 Herri kaskoa paisaian txertatzea

E3.1.1 Seinaleztapenaren berrikuspen eta eguneratzea:

E3.1.2 Ondarearen inbentarioa:

- E3.1.3 Ondarea mantendu eta berreskuratzea:
- E3.1.4 Herriguneko paisaiaren mantentzea:
- E3.1.5 Herri lorazaintza herritarrengana helaraztea:
- P3.2 Arau Subsidiarioko isla
 - E3.2.1 Intereseko eraikuntza guztiak Arau Subsidiarioetan jasotzea:
 - E3.2.2 Herriko jardunbide egokien azterketa eta babesa:
 - E3.2.3 Seinaleztapenaren bateratze azterketa:
 - E3.2.4 Etorkizuneko eraikuntza pentsatu eta jasotzea:
 - E3.2.5 Paisaia Kulturala irudia sortzea:
 - E3.2.6 Transizio guneen garapena antolatzea:
 - E3.2.7 Ekintza Plana Arau Subsidiarioen ardatz izatea:
- P3.3 Herritarren zerbitzuak asetzea
 - E3.3.1 Turismoan oinarrituriko enplegua sustatzea:
 - E3.3.2 Herrian dauden zerbitzuak mantendu eta ugaritzea:
 - E3.3.3 Biomasa energia garatzea:
 - E3.3.4 Energia berriztagarriak sustatzea:
 - E3.3.5 Energia aurrezte eta herriko baliabideak erabiltzea:
- I4 Ildo estrategikoa – Zerain Paisaia Kulturala
 - P4.1 Paisaia hurbiltzeko ibilbideak sustatzea
 - E4.1.1.- Bideen mantenu-lanak:
 - E4.1.2.- Paisaiaren adierazpenerako azpiegiturak egoera onean mantentzea:
 - E4.1.3.- Balizaia eta markazio egokiak bermatzea:
 - E4.1.4.- Ibilbideak izan ditzakeen beharren azterketa:
 - E4.1.5.- Herrimugak zehaztea eta geografikoki kokatzea:
 - P4.2 Jarduera ekonomikoen arteko elkarlana
 - E4.2.1 Produktu turistikoak hobetu:
 - E4.2.2 Baserri adieraztegi sarea sortzea:
 - E4.2.3 Jarduerak uztartzeko produktuak sortzea:
 - E4.2.4 Produktuen jendarteratzea:
 - P4.3- Zeraingo paisaiaren bioaniztasuna jendarteratzea
 - E4.3.1.- Paisaiaren balorean eta bioaniztasunean oinarritutako ekosistemaren emana areagotzeko ikerketak eta ekimenak sustatzea:
 - E4.3.2 - Zerain Paisaia Kulturalaren ezagutzan sakontzeko ikerketak egitea:
 - E4.3.3.- Jendarteratze eskuorri eta materialen edizioa:
 - E4.3.4.- Unitate didaktikoak prestakuntza lanak:
 - P4.4- Zeraingo paisaia kaltetzen duten eragin negatiboak saihestea
 - E4.4.1.- Eremu zahurgarriak identifikatu eta karakterizatzea:
 - E4.4.2.- Zahurgarritasuna gutxitzeko neurriak hartzea:
 - E4.4.3.- Babes irudietan eragin antropikoetatik babesteko oinarriak jartzea:
 - E4.4.4.- Eragin antropikoetatik babesteko akordioetara iristea:
 - E4.4.5.- Lurraldearen zaintzailletza:

I1 Ildo estrategikoa – Mendialdearen garapena

Mendialdea modu egokian garatzeko programa desberdinak aurrikusi dira. Programa hauek artzantzari, basoari eta babesguneei loturik daude eta erabat uztartzen dira. Egungo egoeraren azterketa egin da, kalitate-helburuak finkatzeko eta hauetan oinarrituz ekintza sorta definitzeko.

P1.1 Artzantza eta gaztaren paisaia

Neolitiko garaian hasi zen historiaurreko jendea animaliak etxekotzen eta bazka lortzeko ekintzak burutzen. Orduztik gure paisaiaren adierazle garrantzitsuak izan dira jardunbide honen aztarnak. Baso mozketak, sasiak erretzea eta bestelakoak egin dira animalien larratzea ahalbidetzeko eremuak izan daitezzen.

Zeraingo paisaia dugu honen adibide argia, non, abereentzako eremuak modu jasangarrian kudeatu diren. Honen garrantziaz jabetuta, Zeraingo udalak ekimen ugari sustatu du artzantza jasangarria herrian egonkortu eta hedatzeko, ezin baita landa paisaia hau ulertu jarduera honek bideragarritasunik ez badu.

Egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa

Eustat-ek argitaratutako datuen Euskal Autonomi Erkidegoan orokorrean abeltzantzaren gainbehera ematen ari dela esan dezakegu, lehen sektoreak dituen arazoak direla medio. Hala ere, salbuespenak egon badaude eta honen adibide dugu, Zeraingo herria, non, ardi azienda eta buruak asko ugaritu diren. Goierrin ardi artzantzak apur bat behera egin badu ere, Zerainen, 1999 urtetik 2009 urtera ustiategiak 7 izatetik 9 izatera pasas dira eta buruak ia bikoiztu egin dira, 1212-tik 2034ra.

Negu eta tarteko bazka eremuak

Gure inguruan hain ugariak izan diren eta diren abereak, ardiak batez ere, negua herrigune inguruko behe larreetan igarotzen dute eta ikuiluratuak izaten dira neguaren gordintasunaz babesteko. Baserri inguruko larreez bazkatzen dira baina baita urte osoan zehar segabelardietatik bildu eta metatutako belar onduz.

Honek guztiak, herrigunea biltzen duen landa paisaia ikusgarria osatzen du eta Habitat Arteztarauan jasotzen diren segabelardi atlantiarrez (6510) osaturik dago. Segabelari eta bazka eremu hauek sagarrondo edo bestelako frutarbolez ere osaturik egon daitezke. Mosaiko honen baitan, ezin ahaz ditzakegu lursailen arteko mugak marrazten dituzten zuhaitz eta zuhaixkaz osatutako heskaiaka

Hauetz gain, mendiko larretara bidean, intermedioko larreak daude trashumantzia garaian erabiltzen direnak. Aizkorriko larreak dastatu aurretik, Barbariko larreetan bazkatzen dira, indar hartu eta mendian gora hasi aurretik. Honen adibide dugu Irumugarrieta azpiko eremua, non, larreez gain, haritz kandudun (*Quercus robur*), ametz (*Quercus pyrenaica*) eta bien arteko hibridoek osatutako baso-larreak dauden.

Herri mendiko larreak

Zeraingo mendietan topatzen ditugun larre eta txilardi-otadiak Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren barruan kokatzen dira nagusiki eta jendartearen eraginarekin, batez ere, artzantza estensiboarekin loturik daude. Hauen guztien artean aipagarrienak eta habitat zuzentarauan aipatzen direnak, albiztiak (6210), larre silizikola menditarrak (6230*, lehentasunezko habitata Europan), *Ulex* sp. nagusitzen den txilardi atlantiar lehorrak (4030) eta *Erica vagans* eta *Erica cinerea*-ren txilardi atlantiarrek (4030). Europa mailan aipatzen diren habitat hauetz gain edo hauekin batera, zuhaitz lepamotzez osaturiko baso-larre azalerak ditugu, non, nekazaritza, abeltzantza eta baso ustiapena uztartzen diren, hau da, jarduera agrosilbopastorala.

Aipatu beharra dago, Zeraingo herri lurrez gain, Zerainek eskubideak dituela 1430. urtetik Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoaren eta Gipuzkoako Partzuergo Txikiaren lursailen baitan. Lehenean 1,68 Km²-tan du eskubidea eta bigarrean 0,81 Km²-tan. Honek guztiak artzantza jardura garatzeko aukera ezin hobea eskaintzen du.

Paisaiaren kalitate-helburuak

- Artzantzarekin erlazionatutako, segabelardi, larre, baso-larre eta baso mosaikoz osaturiko paisaia bereizgarri hau denboran zehar mantentzea.
- Artzantzarekin lotutako paisaia hau balioan jartzea horretarako beste erakundeekin akordioak eta funtsak bilatuz.
- Artzainen etekin edo emanak handitzeko ekimenak sustatzea, nekazari eta abeltzainen lana bateratuz, erosgai berriak sortuz eta sektorearteko elkarlana bilatuz. Sektorea mantenduz, bere jarduna eta paisaiaren kudeaketa bermatzen dira.

Ekintzak

E1.1.1 Lur-funtsa sendotzea:

Artzantzan zein nekazaritzan hasi nahi duten Zeraindar zein kanpoko gazteei lursail pribatuak eskura jartzeko aukerak emendatzea, lursail pribatu gehiagoren jabeekin akordioetara iritsiz. Lehen sektoreko jardunbide hau mantentzea beharrezkoa da mendeetan zehar sortu den paisaiaren biziraupena bermatzeko.

E1.1.2 Jarduera ekonomikoak uztartzea:

Paisaia mantentzeko, jarduera ekonomiko desberdinak (turismoa, gazta eta transformazioko beste erosgaien sustapena, e.a.) laguntzea eta euren arteko elkarlana sustatzea, ekimen berriak diseinatuz.

E1.1.3 Udalaz gaindiko erakundeekin akordioetara iristea:

Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusiarekin akordioetara iritsi finantzaketa lortzeko eta herritar ororentzat interesgarria den paisaia mantentzeko.

E1.1.4 Interes komunitarioko habitatak babestu eta berreskuratzea:

Baso, baso-larreei, larre eta segabelardiei lotutako interes komunitarioko habitatak modu jasangarrian kudeatzeko ikerketa eta plangintzak prestatzea, hauen sortzen duten paisaiaren etorkizuna bermatze aldera.

P1.2 Basoaren funtzio-aniztasuna

Historian zehar erabilera desberdinetara bideratutako baso ustiapenak gure paisaia eraldatu du:

- Etxeak berotzeko su-egurra.
- Meagintza eta burdinoletarako ikatza sortzeko.
- Eraikinak eta egiturak sortzeko.
- Fruituak lortzeko
- e.a.

Baina azken hamarkadetan, baso exotikoen landaketak izan dira oinarri eta kasu batzuetan mosaiko interesgarriak osatu badituzte ere, desorekak eragin dituzte paisaian. Gainera, gaixotasunak, lur azidotzea eta erosioa bezalako arazoak ere ekarri dituzte.

Honen guztiaren ondorioz, etorkizunera begira bertako espezieetan oinarritutako basoen ustiapen multifuntzionala bideratu nahi da udaletik. Honela, bertako landarediaren berreskurapenean oinarrituz, kalitatezko egurra bilatu, baso exotikoak kendu, biomasa bermatu, silbopastoreoa edo baso artzantza bultzatu, lurrak publikotzen jarraitu eta basoaren balioa jendarteratzeko unitate didaktikoak prestatuko dira.

Egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Baso Inbentarioan oinarriturik, Zerainek dituen 1025 hektik 714 baso edo baso-landaketak dira, hauetatik 251 ha basoa eta 463 ha baso-landaketa. Erabiltzen diren zuhaitzen artean, 446 ha koniferoak dira eta 268 ha hostozabalak. Koniferoen artean intsinis pinua (*Pinus radiata*) eta larizio pinua (*Pinus nigra*) gailentzen dira hurrenez hurren eta hostozabalen kasuan baso misto atlantiarra eta haritz kandugabea (*Quercus rubra*). Zuhaitzez osatutako lursailen % 12,4 publikoa da eta honek izan duen eta izan dezakeen kudeaketan eragina du.

Basoen egoera

XX. mendean sustatutako basogintza hazkunde azkarreko espezieetan oinarritu da eta hau, industrializazioaren ondorioz emandako larre eta garo lursailen berreskurapenerako baliagarria izan da. Hala ere, behar dituzten tratamenduek (sasi-garbiketa, bakanketa eta erabateko mozketak) eta azpiegiturek (bigarren mailako pista eta egur ateratze pistak) eragina dute paisaian. Hala ere, bertako espezieen kudeaketa ez da alboratu eta oraindik garrantzia du.

Basoen ustiapena

Basoak funtzio-aniztasuna (egur ustiaketa, su-egur eta biomasa lorpena, perretxiko bilketa, aisialdirako eremua, baso artzantza, zuhaitz lepamotzak, jendea erakartzeko paisaia erakargarria e.a.) badu ere, azken urteetan egur ustiaketa gailendu egin da etekin zuzenari balio handia emanez. Balio ez-zuzenak garrantzia galdu duenez, estrategiek eta kudeaketa planek ez dituzte haintzat hartu, eta paisaian izan duten eragina nabarmena da. Etekin ez-zuzen hauek balioan jartzea Zerain Paisaia Kulturalaren baitan garatu den lan ildo da eta 2014. urtera arte 165,59 ha berreskuratzeko esku hartu da, udalerraren % 16,15-a hain zuzen.

Lursailak publikotzea

Azken urteetan Zeraingo Udalak lursail pribatuen erosketak egin ditu programa desberdinen bitartez eta erosketa hauekin jarraitzea da asmoa. 2007. urtean, herri-lurak 123,27 ha ziren eta 2014. urtera arte, 42,31 ha publiko egin ziren. Lurak publikotzea berebiziko garrantzia du Zerain Paisaia Kulturala ikuspegiarekin jarraitzeko, azken finean, sortu nahi den paisaia zein jendarteak eskumenak izatearekin zuzenki loturik dago. Paisaiak epe luzearako ikuspegia behar du eta jabetza publikoak bermea ematen dio.

Paisaiaren kalitate-helburuak

- Bertako espezieetan oinarritutako baso kudeaketa funtzio-anitzaren garapena lurren publikotzean oinarritua, paisaiaren berreskurapen tresna gisa.
- Jarduera ekonomiko desberdinak eta biodibertsitatearen zein paisaiaren kudeaketa uztartzea, bideragarritasun ekonomikoa bilatuz, kontserbazio zein berreskurapen iraunkorra bermatzeko.
- Basoaren jasangarritasun eta paisaiaren iraunkoratsuna bermatzeko basoaren funtzionaltasuna ezagutzeko beharrezko ezagutzak sortzea.

Ekintzak

E1.2.1 Lursailak publikotzea:

Aurretik aipatu diren ekintzen bideragarritasuna udalerrian ahalik eta gehien hedatzeko, udalaren diru-futsak erabiltzea eta kanpo diru iturriak bilatzea lursail pribatu gehiago erosteko, betiere, baserritarren beharrak kontuan hartuz. Honela, herriaren paisaiaren kalitate-helburuak azalera handiagoan islatu ahal izango dira.

E1.2.2 Bertako basoaren berreskurapena:

Zeraingo Udalaren eskumen diren baso lursailletako paisaia hobetzeko, espezie exotikoak ordezkatu maila progresiboan, lurzorua gaineko eraginak gutxienak izan daitezten eta egindako inbertsioei errentagarritasuna ateratzeko. Era berean, Herri Onurako Mendietan GFaren kudeaketa bertako espezieen berreskurapenera bideratzeko neurriak hartuko dira.

E1.2.3 Basogintza funtzio-anitza:

Aurreko ekintzarekin loturik, baso kudeaketa berriak bilatu behar dira basoak dituen funtzio guztiak balioan jarri eta beraien onurak bateratzeko. Funtzionaltasun desberdinen arteko oreka bilatu behar da: kalitatezko egur ustiaketa, biomasa, su-egurra, fruituak eta perretxiko bilketa, artzantza, aisialdirako eremuak, suteen aurkako babesa, paisaiaren gozamina, lurzorua zein biodibertsitatearen babesa e.a. Hau guztia lortzeko, funtzio bakoitzaren bideragarritasuna ahalbidetuko dituzten ikerketa eta antolamendu planak egitea beharrezkoa izango da.

E1.2.4 Zuhaitz leptomatzak babestea:

Zuhaitz leptomatz edo mugarrotuak oso hedatuak daude gure lurraldean eta benetako altxor ekologiko eta kulturala izateaz gain, berezkotasuna ematen digun paisaia da. Eremu hauek babestu behar dira, horretarako, ekintza bideragarriak bilatuz. Diru-laguntzak lortzeaz gain, jarduera ekonomikoetara lotuko dira (su-egurra, biomasa, artzantza, fruitu eta perretxiko bilketa) nolabaiteko errentagarritasuna izan dezaten.

E1.2.5 Baso-larre landa egitura sustatzea:

Artzantzan oinarrituriko ekonomia sustatzeaz gain, paisaiaren bereizgarri diren usadiozko baso-larre eremuak mantendu eta berriak sortzea, kudeatzeko eskumena eta gaitasuna duten Eusko Jaurlaritzak, GFA, Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Patronatua zein Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusiarekin harreman eta akordioak eginez. Honen helburua, larre eta inguruko basoak kudeatzerakoan etorkizuna silbopastoreoa izan dadin, hau da, basoen dentsitatea jaiste ahalbidetzeko.

P1.3 Babesguneak zaindu eta balioan jartzea

Paisaiaren Ekintza Plan honen baitan, ardatz nagusietako bat babesguneak zabaldu eta ugaritzea da, gune hauek mantentzeko bermea eta etorkizuneko paisaiaren kalitatea hobetzeko bidea direlako.

Aurreko belaunaldien kudeaketaren ondorioz, ondare paregabea jaso dute Zeraindarrek. Mendi tontor, ibai, baso, larre, soro, baratz, historiaurreko eraikuntzak, baserri, jauregi, hizkuntza, ohitura eta bestelakoak dira honen adibide. Natura, kultura eta historia ondarea, materiala zein inmateriala, mantentzeko babes irudi desberdinak erabili dira historian zehar eta prozesu horretan sakondu beharra dago, etorkizuna bermatze aldera.

Eguno egoeraren azterketa eta diagnostikoa

Udalaren sentsibilizazio eta aurrikuspenari esker, Zeraingo mugen baitan dauden hainbat eremu eta elementu babestuak izan dira. Honen adibide dugu Aizkorri-Aratz Parke Naturala, Lasurtegiko hezegunearen baitan dauden bi istinga eta Larraondoko zerrategi hidraulikoa, Aizpeako meategia Monumentu Multzoa, Monumentu Megalitikoak, Oako harrobia eta Donejakue bidea zein honen baitan dagoen ondare historiko-kulturala. Babes irudiek herriaren etorkizunerako duten garrantziaz jabeturik, Udalak izendapenerako bideak ireki ditu eta beste kasuetan, Udalaz gaindiko izendapenetan txertapen egokiena bilatu du.

Aizkorri-Aratz Parke Naturala

Aizkorri-Aratz Parke Naturala irudia 1994an sortu zen eta Arabako lau eta Gipuzkoako zazpi udalerrietan hedatzen da. Zeraingo herri mugen barnan, 136,92 ha daude baina Parke Naturalaren izendapen prozesuan, Zerain barneko mugak zehazteko garaian herrilurrak hartu ziren kontuan eta, honek, natur izaerarekin zerikusirik ez duen muga artifiziale marraztu zuen.

Azken urteetan, Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzeko garaian, Parke Naturalaren mugak erabili dira eta, hau, ez dator bat Natura 2000 Sarean aipatzen den koherentziarekin. Paisaia eta biodibertsitate jarraitasun eta koherentzia izateko, naturak berak zehaztu beharko lituzke mugak erreka, arro eta mendi tontorrek kontuan izanik. Ikuspegi honi jarraiki, Larraondo eta Aizpea errekek Parke Naturalaren muga marraztea eskatu du Zeraingo Udalak.

Lasurtegiko Hezegunea

Olaiztinga eta Basaltegiko istingak barneratzen dituen Lasurtegiko Hezeguneak osorik egon beharko luke Parke Naturalaren eta KBERen baitan, bioaniztasunarentzat balio interesgarria baita. Hala ere, momentuz bereizirik dago.

Gainera, hezegune honen adierazle nagusiak Lurraldearen Arloko Planean aipatzen diren B1G7-01 (Basaltegi) eta B1G7-02 (Olaiztinga) istingak badira ere, ezin ahaz dezakegu ur-sistema integrala osatzen duela eta Lasurtegi errekaen arro osoan gertatzen denak eragina izaten duela, bai errekan gora zein behera.

Hidrologia mailan sistema bakarra osatzeaz gain, paisaiaren eta bioaniztasunaren ikuspuntutik unitate bakarra osatzen du eta bere osotasunean landu beharko litzateke.

Larraondoko zerrategia

Larraondoko zerrategia, 1890 urtearen inguruan bertako baserrikoek eraikitakoa da. Energia hidraulikoz baliatzea da zerrategi honen berezitasun nagusia. Aldaparoan biltzen den ura, hodietan zehar, zerrategian dauden bi turbinetara bideratzen da, bertako tresnak mugitu edota argi indarra sortzeko.

2011ko maiatzaren 16ko Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpenez Larraondoko zerrategia (Zerain, Gipuzkoa), monumentu izendapenez, Euskal Kultura

Ondarearen Zerrenda Orokorrean atxiki da, bertan, zerrategia, gaineko aldaparoa eta inguruko larreak barneratuz.

Zerrategia, Zeraingo balio kultural garrantzitsuenetako bat izateaz gain, honen aldaparoa , Lasurtegiko hezegunearen natur-balio aipagarrienetako bat ere bada.

Aizpeako meategia Monumentu Multzoa

Aizpeako Meategiko 150 hektarea zabaletan, XI. Mendetik oraintsu arte (1.950 arte) burdina erruz ustiatu izan da. Meatzaritzari lotutako lan hauen ondorioz, gaur egun, BURDINAREN LURRETAKO berezko paisaia bat dugu Zeraingo Aizpeako meategian.

Aizpeako meategien lehenengo erreferentzia idatziek XII. mendera garamatza, nahiz Erromatar garaiko toponimia ere ageri den, eta ordutik hasita, 1951. urtean gaur egun ikus daitezkeen labeak itxi ziren arte, burdin minerala erruz erauzi da Zeraingo lurralde honetatik. Garaian garaiko teknikez baliatuz ustiatutako paisaia honetan, aktibitate honen adierazpenak non-nahi azaleratzen dira: dozenaka galeria zulo, aire librean mea ateratzen zen harrobiak, minerala ateratzeko garraio sistemak (trenbideak, aireko kablea, errestabideak, gurdibideak, eta abar), mineral piloak, ingeniariaren etxea eta guztietan ikusgarriena den kiskaltze tailerra.

Mendi honek gordetzen duen kultura ondarearen balioaren zenbatekoa dela eta, 2008ko Uztailaren 10eko 126/2008 dekretuaren bidez, Ondasuneko Monumentu Multzo izendatuz Saillkatutako Kultura Ondasun deklaratu ziren Aizpea Meategiko lurrak. Aizpea Meategiko Monumentu Multzoak, burdinaren mendiko 122 ha-tan, udalerriko lurren % 12a biltzen du.

Gaur egun, Aizpeako meategiko paisaia natural eta kultural hau, ustiaketa honen eraginez, mendeetan zehar garatu den kultura protoindustrialari eta industrialari lotutako elementuek eta meategien ustiaketaaren abandonuaren eraginez, bertan berez garatu diren habitat komunitate eta ekosistema ezberdinek osatzen dute. Honek Lurralde honi aparteko izaera ematen dio eta bertako bioaniztasunari beste inon ez duen balorea. Horregatik, goreneko bi izendapen biltzen dira bertan: Aizkorri-Aratz Parke Naturala eta Aizpea Meategiko Monumentu Multzoa.

Monumentu megalitikoak

Zeraingo mugen barnean, bereziki, Zegama eta Legazpiarekin muga egiten, Brinkola-Zegama Estazio Megalitikoaren baitan kokatzen den elementu ugari topatzen dugu. Historiaurreko zeraindarren aztarna desberdinak topa ditzakegu: tumulo, harkutxa eta trikuharriak. Historiaurreko ondare interesgarria izateaz gain, gure paisaiaren elementu aipagarriak dira eta balioan jarri behar ditugu.

Bereziki aipagarriak dira eranskinetan deskribatzen diren Antolarreko tumulua, Irumugarrieta II-ko harkutxa eta Oamendiko trikuharria, guztiak Brontze aroko aztarnategiak. Hauek dira gehien aztertutako elementuak baina ezin ahaz dezakegu bide honetan sakondu behar dela.

Oako harrobia

Zeraingo meategi barrutitik gora joanda dago Oa mendia. Gain ederra da, Aizkorriko mendizerraren erpin batean. Harri lekua izanik —Harripilata ere deitzen zaio—, harrobi eta hargintza lanak garrantzia handia izan zuten, antzina, eremu horretan. Oako harri mota oso estimatua eta erabilia izan zen eraikuntzan. Historiaurretik, esan beharko da; tumulu edo harrespila bat ere badago eta.

Zerainen, Aizpea auzoko baserrietan bereziki, Oako harrobian hargin lanbidea ikasitako asko ziren. Honen adibide aipagarria Goia margolariaren birraitona dugu, zeina, elizak eskatuta Aragoira joan zen hargin modura eraikuntzetan laguntzera.

Donejakue ibilbidean babestutako elementuak

2012ko urtarrilaren 10an, 2/2012 dekretuaren baitan Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatu da eta XXI. mendeko ibilbidea finkatzen da, kostako bidea eta San Adriango Tunelaren Bidea.

San Adriango Tunelaren Bidea deritzon ibilbidea Zeraingo herritik pasatzen da, eta honi atxikitako ondasunak ere babestu eta jasotzen dira aipatu dekretuan. Hauen artean Zerain-Segurako galtzada, Jasokunde Ama Birjinaren eliza, Olabide baserria, Bolatokia, San Blas basiliza, Udaletxea, Zabalegiko hilarria eta Zeraingo herri-gunea biltzen dira.

Azken hau da, Itziargoarekin batera, hiribildua izan gabe babestua den hiri-gune bakarra. Kaskoarekin batera babesten dira Jauregi etxea, Bikario-enea eta Benefiziaune etxea.

Gaur egun bide honek erakarrita makina bat erromes pasatzen da Zeraindik eta askok bertan ostatu hartzen dute hurrengo etapa hasi aurretik.

Paisaiaren kalitate-helburuak

- Zeraingo natura eta kultura ondarea ezagutzeko ikerketak abiarazi edo sustatzea, Zerain Paisaia Kulturalaren lan-ildo nagusi bezala, paisaiaren osagaiak ezagutzuz, bere kalitatea hobetzeko irizpideak lortzeko.

- Aitortutako babesguneen egungo baldintza zein egoerak aztertu, beharrezko ikusten diren hobekuntzak egin eta balioan jartzeko zein berreskuratzeko neurriak hartuz. Honekin, babestutako elementua nagusien kalitatea hobetzeko neurriak hartu ahal izango dira.

- Interesa duten elementu berriak babesteko neurriak hartzea izendapenak bilatuz eta elementu desberdinen azterketan sakontzen jarraituz. Ondarearen izendapenen bitartez, pasiaren elementu berriak balioan jarriko dira eta etorkizunean mantentzeko eta hobetzeko bidea prestatuko da.

Ekintzak

E1.3.1 Aizkorri-Aratz Parke Naturalari koherentzia ematea:

Aizkorri-Aratz Parke Naturalari eta KBE-ri koherentzia ematea, herrilurren mugetatik haratago joanez, hau da, Zerainen barnean dauden naturguneen mugak orografia, hidrogeologia eta biodibertsitatea haintzat hartuz definitzea. Babes irudiak Arau Subsidiarioetaz gain, udalerriz gaindiko erakundeetan sustatuko dira. Dagoeneko Parke Naturalaren mugak Larraondo eta Aizpea erreketaraino zabaltzeko eskaera egina du Zeraingo Udalak eta indar egiten jarraituko du lortu arte. Era berean, honen baitan dauden lursailen jabeen informazioa helaraziko zaie, dituzten beldurrak uxatzeko.

E1.3.2 Lasurtegiko hezegunea osotasunean izendatzeko pausoak ematea:

B1G7-01 (Basaltegi) eta B1G7-02 (Olaiztinga) istingak osatzen duten babes eremuaren hedapena, Lasurtegi errekararen harro osoa babes eremu bilakatuz eta Larraondoko zerrategia barneratuz, paisaia eta hidrologia unitate bakar bezala landua izan dadin. Paisaia honetan, hezeguneetan ematen diren landaredi serie desberdinak berreskuratzea bilatuko da. Kasu honetan ere, babes irudiak Arau Subsidiarioez gain, udalerriz gaindiko erakundeetan sustatuko dira.

E1.3.3 Kulturari lotutako babesguneen sakontze lana:

Aizpeako meategi-gunea, monumentu megalitikoaren estazioan eta Donejakue bidearen baitan dagoen ondarearen ezagutzan sakontzea, ikerketa berriak eginez zein babes eremuaren azalerak aztertuz, eta egoera berrietara egokitzeke babes-irudiaren beharrezko aldaketak egitea. Honela, lurraldearen eta paisaiaren osagai garrantzitsu hauen kalitatea hobetzeko bidea irekiko da.

E1.3.4 Natura eta kultura ikerketak:

Orain arte baliagarria izan den estrategiarekin, hau da, Zeraingo natura eta kultura

ondarearen ezagutzarekin erlazionaturiko ikerketak egiten jarraituko da, Zerain Paisaia Kulturala ekimenaren ardatza direlako eta honek herriaren garapenerako berebiziko garrantzia izan eta izango dutelako. Natura eta kultura ardatz izanik, paisaiaren ekonomia bat sustatzea da asmoa artzantza, nekazaritza, sagardogintza, gaztagintza eta bestelako produktuen sustapena bideratuz.

E1.3.5 Sustapena eta hedapena:

Dagoeneko abiarazitako paisaia kulturalaren zabalkundearen bideari jarraipena emanez, babesguneetan oinarritutako turismoa sustatzen jarraituko du Zerainek. Horretarako, jendarteratze material, ibilbide tematiko eta informazio azpiegiturak osatuko dira eta egun daudenak egoera onean mantendu eta hausiz gero ordezkatuak izango dira.

E1.3.6 Paisaia kulturala babesteko irudia:

Arau Subsidiarioen baitan Paisaia Kulturala osatzen duten elementuak babesteko irudi berritzailea sortzea. Horretarako, munduko beste eskualde eta herrietan erabili diren babes neurri eta irudiak aztertu, Zeraingo kasura moldatzeko. Honen bitartez, paisaia kulturala ardatz izango duen araudia osatuko da.

I2 Ildo estrategikoa – Baserriaren etorkizuna

Baserri mundua eta Zerain elkarloturik egon dira mendeetan zehar eta honen ondorioz sortu den paisaiak gaurdainoko proiektzioa izan du. Honek guztiak, herriaren berezko izaera zehaztu du eta hau mantentzearen lehen sektorearekin lotutako jarduera ekonomikoa bermatu behar da. Ildo estrategikoa honen funtsa, jarduera ekonomikoa garatzeko beharrezko baldintzak sustatzean datza eta hiru programa desberdinetan bereizten da.

P2.1 Baserriko landa paisaia mantentzea

Zerain gaur egun ere lehenengo sektorean aitzindari den herria da, hainbat baserritar berrik bertan jarri dute beraien ekoizpen jarduera. Aurreko mendeetan bigarren sektorekoak ziren jarduerak, hirugarren sektorera bilakatu dituzte bisitariak erakarri eta bertako artisau eta kalitatezko produktuak saltzeko.

Azken urteetan, Zerain Paisaia Kulturalaren baitan herriko etorkizun sozio-ekonomikoa bertako berezko baliabideetan oinarrituz eta herrian lanpostu berriak etengabe sortzen ari dira Zeraindarrak. Lurraldearen neurrirako ustiaketa iraunkor hau, kalitatezko nekazaritza produktuak ekoiztera eta hirugarren sektoreko zerbitzu turistiko egokien eskaintzara zabaltzen da.

Era berean, Gipuzkoan eta bereziki Goierrin ematen denarekin osatzen den arren, berezkitasun aipagarriak ditu. Hauek mantendu egin behar dira eta etorkizunera begira nolako paisaia eta herria nahi den zehaztu behar da. Horretarako, egun dagoena babesteko neurriak hartu behar dira baita etorkizunera begira helburu berriak finkatu, kalitatezko sistema osatzeko integrala osatuz.

Eguno egoeraren azterketa eta diagnostikoa

Egun Goierrin eta orokorrean EAEn gertatzen ari den bezala, Zerainen ustiategi kopuruak jaitsi egin dira. Baserri edo eraikinak etxebizitza izatera pasa dira eta lursailak utzi edo beste helburuetara bideratu dira. Honela Eustat-en arabera 1999an 54 ustiategi zeuden altan 758 hektarearekin eta 2009an soilik 27 544 hektarerekin. Hala ere, eta iturri berberak aztertuta, erabilitako nekazaritza-azalera handitu egin da hamar urte hauetan.

Jarduera mantentzea

Momentuko egoerara egokitzeak, Zerainek historian izan duen landa izaerako paisaiaren mantentzea ekarri du. Usadiozko artzantza zein nekazaritzaren gainbeherari aurre egiteko ganorazko ekimen desberdinak bultzatu dira eta honen ondorioz, baserria biziberritu eta honi lotutako paisaia mantendu da. Besteak beste, nekazalturismoak sortuz, baserrien jarduera mantendu da, artzain berriak erakartzeko ukiulu modernoak egokitu dira, Lumagorri labela eta Idiazabal jatorri izendapena sustatu dira, Gazta eta Sagardoaren mendia bezalako produktu turistikoak sortu dira e.a.

Produktuak lantzea

Lehen sektoreko produktuetan oinarrituriko artisautza produktuak ekoiztea ere ezinbesteko aurrerapausoa izan da prozesu honetan, nekazaritza zein abeltzantzan lortutako produktuak landutako produktu bezalako erabilera emanez, jarduera ekonomikoaren biziraupena ahalbidetu da. Honekin loturik, sagardoa zein kalitatezko gazta bezalako ekoizpenak sustatzeaz gain, sortu berri den kontserba gozoak egiteko lantaldea eta antzerako ekimenak bilatzen dabil Zeraingo Udala.

Merkaturatzea

Baserritarrek euren produktuak saltzeko zituzten arazoez jabetuta, Zeraingo Udalak bi ekimen nagusi sustatu ditu erosgaien merkaturatzea errazteko, tokiko erosgaien denda eta webgune

bidezko salmenta. Bi ekimen hauek garrantzia handia izan dute erosgaiak bideratzeko garaian, baserritar eta erosle potentzialen arteko bitartekaritza duina lortu baita eta baserritarren salmentak emendatu baitira. Honek guztiak bertako baserritarren egoera hobetzea ekarri du.

Baserri jarduera mantentzea

Herriko bi nekazalturismoak eta sagardotegia sortzeko ekimenek baserrien biziraupena ahalbidetu duten bezala, baserriak berak bere jardueraren ondorioz sortzen duen paisaia ezagutzera emateko ekimenak badaude eta oso interesgarria dira bixitariarentzat. Honen adibide dugu Ariztierdi aterpetxetik bixita gidatuak antolatzen dira Gazta eta Sagardoaren Mendia ekimen turistikoaren bitartez erlezaintza, artzantza, gaztagintza, sagardogintza eta bestelako jarduerak ezagutzeko.

Baserri inguruko paisaiaren babesa

Burgomendirekin egin den bezala, Arau Subsidiarioak baliagarriak izan dira baserri paisaia honen babeserako oinarriak finkatzeko baina babes irudi honetatik haratago joatea beharrezkoa da, paisaiaren babesa bermatu nahi bada. Zeraingo baserri paisaia baratza txiki, fruitarbola, soro, segabelardi, larre, sagasti, artasoro, mahasti heskai bizi zein bestelako landaketek betetzen dute eta baserri, errepide, basobide zein beste eraikuntzek osatzen dute.

Eremu bereizgarri aipagarriak ditu eta, honek bere biziraupena ziurtatzea eskatzen du. Paisaiaren osaketa nolakoa den garrantzitsua bada ere, paisaiaren beste elementuekin duen integrazioa kontuan hartzea ezinbestekoa da, ikuspuntu desberdinetatik gertuko zein urruneko elementuek bat egiten baitute, adibidez, herri kaskoa Aralar edo aizkorrekin.

Baserritarrak laguntzeko neurriak

Zerain Paisaia Kulturalak, baserritarrak eta euren jarduna laguntzeko hainbat neurri edo ekimen eraman ditu aurrera, baserritarren bizimodua eta beharrak errazteko. Hauen artean, produktuen eraldaketarako zentroa sortzea, herritar desberdinen erabilerarako zerrategia eta Gazta eta Sagardoaren mendia bezalako produktu turistikoak prestatu dira. Honen guztiaren bitartez, baserritarrek hainbat erraztasun lortu dituzte euren jarduna aurrera eramateko, bai instalakuntza zein erosgaien komertzializazio aldetik.

Paisaiaren kalitate-helburuak

- Abiarazi diren ekimen guzti hauen ezagutzan oinarrituz, etorkizunera begira egon daitezkeen aukera interesgarri berriak identifikatu eta sustatzea, azken finean, paisaiaren zaintzaileak lagunduz paisaia bera laguntzen baitugu.
- Lehengai zein erosgai eraldatuaren merkatuaren eskaeretara doitzea, bereziki, erosgaien berrikuntzan eta eraldatutako produktu berrien sustapenean oinarrituz. Honela ere, jarduera ekonomikoa eta lurraldearen zaintzailetza laguntzen dira.
- Baserri paisaiaren ezaugarri bereizgarriak identifikatzea, herrian kokatzea eta Udal zein Udalez gaindiko erakundeek babes irudietan txertatzea, bere etorkizuna bermatzeko.

Ekintzak

E2.1.1 Aurreko ekimenak sendotzea:

Zerain Paisaia Kulturalaren baitan lehen sektorea sustatzeko aurrera eraman diren ekimenek izandako ibilbidea aztertu eta izandako eragina ezagutzeko ikerketa egitea, gabeziak identifikatu eta etorkizuneko lan ildoak finkatzeko. Honen baitan, lur-bankua sendotzea eta nekazari berriak erakartzeko ekimenak diseinatzea.

E2.1.2 Lehen sektorea sustatzeko ekimen berriak antolatzea:

Gipuzkoa, Euskal Herria, Europa eta Mundu mailan bultzatzen diren ekimenak aztertu eta Zeraingo herrira egokitu daitezkeenak moldatu eta abiaraztea, orainarte izan den

berrikuntza ildoari eutsiz. Honela, lur-funtsa oinarritzat hartuz, ekoizle berriak erakartzea bilatuko da.

E2.1.3 Erosgai eraldatuen merkatua indartzea:

Inguruko eskaerei erantzuteko, merkatuaren azterketa egin eta Zeraingo baserritarrek eskain ditzaketen produktu eraldatu berriak identifikatu eta hauen komertzializaziorako bideak irekitzea, horretarako, eragile guztien arteko elkarlana bilatuz. Honela, paisaia mantentzeaz arudratzen lehen sektorea langunduko ditugu.

E2.1.4 Erosgaiak sustatzea:

Zeraingo lehen sektoreko zein eraldatutako produktuak ezagutzera eman eta salmenta emendatzeko neurriak hartu, beste erakundeekin harremanak eginez, diru-laguntzak eskuratuz eta kanapainak egiten lagunduz.

E2.1.5 Baserri paisaia definitu eta karakterizatzea:

Bereizgarria edo interesgarria izan daitekeen Zeraingo baserri paisaiaren ezaugarriak deskribatzeko eta herrian duten kokapen eta azalera ezagutzeko ikerketa egitea.

E2.1.6 Baserri paisaia babestea:

Arau Subsidiarioek eskaintzen duen aukera baliatzea, aipatu baserri paisaiak irudi honen babespean izateko eta, ondoren, Udalaz gaindiko babesak lortzeko oinarri izan dadin.

E2.1.7 Baserritarren sentsibilizazioa:

Baserri paisaiaren arduradun nagusiak jabe pribatuak izanik, hauengana gerturatu eta paisaia helburuak helarazteko kanpaina abiaratzea ezinbestekoa da, honela, paisaia mota honen kudeaketa integrala lortuko bailitzateke. Sentsibilizazioaz gain, paisaia babesteko baliagarriak diren dirulaguntza, antolatu daitezkeen auzolanak eta bestelako informazio interesgarria zabalduko zaie. Auzo eta herrigunearen arteko kohesioa bilatu eta komunikazioa hobetuko da, bideak eta informazioa modu egokian kudeatuz.

E2.1.8 Landa eremua baserritarren beharretara egokitzea:

Baserritarrak landa paisaiaren emakinez bizi direnez eta paisaiaren zaintzailtza eurek daramatenez, landa eremua ere euren beharretara egokitzekeo neurriak hartuko dira, besteak beste, basoak baso-larre bihurtzea, larreak sortzea, hesi edo heskaiak sortzea, nekazal lurak prestatzea e.a. Honekin batera, izurriteei (sator, basurde, orkatz) aurre egiteko erraztasunak izateko neurriak hartuko dira.

P2.2 Lur-funtsa sendotzea

Baserri askotan jarduera uzten joan da eta lursailak eskualdatu gabe bertan irauten dute. Iraute honetan etxe buelta nola hala garbi mantendu nahi izaten da, batzuetan horretarako propio ganadua jarriz (asto, ahuntz, pottoka eta abar), beste batzuetan garbitze aldera sailak ingurukoren bati emanaz eta besterik ezean, gogoz kontra bada ere, etxe ondoan pinudia jarriz edo lurak sasi jantzita abandonatuz. Gezurra badirudi ere, lurjabearentzat zaila izaten da sail bila dabilen bat topatzea.

Egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa

Lur-funtsaren bitartez lursail poltsa bat sortzeaz gain, lursailen bila dabilzan eta lursailak utzi nahi dituztenen arteko bitartekaritza lana egitean datza, basogintza, nekazaritza eta abeltzantza sustatu, enplegua sortu eta lurjabeen beharrei erantzuna emateko. 2012an abiatu zen Zeraingo lur-funtsa, ekimen berritzailea Gipuzkoa mailan, eta honi esker hainbat eremuari erabilera egokitu zaie eta hainbat artzainei jarduera ahalbidetu.

Nekazaritza eta abeltzantzarako lursailak

Zeraingo landa garapen iraunkorraren etorkizuna indartzeko eta herrian lanpostu berriak sortu eta daudenak bermatzeko, inguruan eta Gipuzkoan erabat berritzailea den GORDE-LURRAK lur funtsa proiektu pilotua martxan jarri eta hau kudeatzeko irizpideak bideratuko ditu. Lur funtsa nekazaritzarako, abeltzaintzarako, basogintzarako nahiz natura babesteko erabilgarri leudeken lursailen poltsa bat da. Nekazari nahiz artzain berriak erakartzeko premiazkoak diren lur sailak funtsaren bidez eskuragarri daude.

Lursail hauen emendio eta jendarteratzea

Hala ere, ekimenaren kudeaketa hobetzeko tresnak hartu behar dira eta, honekin batera, lurjabeekin harremanak izateko eta jendarteratzeko ekintza desberdinak garatu behar dira, hainbat lurjabeekin egin ziren galdeketak esaterako.

Esperientzia interesgarria dago Burgomendin, non, mendi tontor batean lursailak dituzten 9 lurjabeekin akordioa bilatu da, lursailak bateratu eta bi artzainen erabilerara 10 urtez bideratzeko. Honela, lurjabe eta artzainen beharrak asetu dira bide batez.

Paisaiaren kalitate-helburuak

- Lur-funtsa herrian egonkortu eta bere hedapenari bidea irekitzeko neurriak hartzea, paisaiaren kudeaketarako ardatz gisa.
- Ekonomia jarduera sustatzeko eta paisaia kudeatzeko ardatz honen aintzindari izateak eskaintzen duen abantailan oinarrituz, eskualdeko erreferente izatea eta inguruko herrietara zabaltzea, gidaritza herrian mantenduz eta inguruko h
- Lur-funtsean eta lursailen publikoatzean oinarrituz, eremu horien ustiaketa bideratzea lurraldearen zaintzailatza egokia bideratzeko eta paisiaren kalitatea hobetzeko.

Ekintzak

E2.2.1 Kudeaketarako organo bat sortzea:

Lur-funtsak lehen sektorean eta paisaia mantentzen izan duen arrakasta emendatze aldera, Zerainen kokatuko den kudeaketarako organo bat sortzea interesgarria da baina eraginkortasunari begira, eskualdeko herriak ere partaide izan beharko lukete.

E2.2.2 Burgomendiko esperientziaren zabalkundea:

Burgomendiko esperientziaren arrakasta aintzat hartuz, antzerako ekimenak sustatzea beste lurjabeekin eta lehen sektoreko beste jarduera ekonomikoekin, adibidez, basogintzarekin eta nekazaritzarekin lotutako beste ekimenak. Honela, landa paisaiaren kalitatea bermatzea lortuko da.

E2.2.3 Lur-funtsaren balorazio eta etorkizuna:

Ekimenak izandako bidearen berri izateko eta paisaian izan duen eragina ezagutzeko jarraipen bat egin behar zaio, AMIA (Ahultasun, Mehatxu, Indar eta Aukerak) analisisa erabiliz, epe labur, ertain eta luzera etorkizun berria finkatzeko.

E2.2.4 Komunikazio kanpaina:

Lursailen poltsa emendatu, ekimena jendarteratu eta eskualdeko herrietara hedatzeko kanpainak egin behar dira, modu digital eta fisikoan, orain arteko azpiegiturak erabiliz eta aipatu organo berrian oinarrituz.

I3 Ildo estrategikoa – Herrigunea

Orain arte mendi eta baserri inguruetan ematen dena aztertu ondoren, jende gehien bizi eta herritarren bilgunea den herrigune edo kaskoa aztertuko dugu. Hemen ematen dira herritarren arteko elkarrekintza gehienak, bertan elkartzen baitira zerbitzu eta eskaintza gehienak. Herriaren muina izanik ere, bere ingurunearekin lotura estua izan du eta horrela jarraitu behar du izaten, horretarako, inguruarekiko txertapena beharrezkoa da eta hau bermatu beharra dago etorkizunera begira horrela izaten jarraitzeko. Era berean, herriak eskaintzen dituen zerbitzuak bermatzeaz gain, emendatzea izango litzateke egokiena biztanlegoaren bizi kalitatea eta paisaiaren etorkizuna hobetzeko.

P3.1 Herri kaskoa paisaian txertatzea

Zerainen aurreko mendeetan lehen eta bigarren sektorekoak ziren jarduerak erabili dira, hirugarren sektorerara moldatu edo egokitzeko, honela, bisitariak erakarri dira eta bertako artisauen zein kalitatezko produktuen salmenta ahalbidetu da. Baina lehen, bigarren eta hirugarren sektoreak uztartzeko prozesu horrek, kaskoaren paisaian isla izan du, lorazaintza eta etxegintza ingurunera egokituz. Gainera, herri kaskoan dauden elementuak mantendu, berreskuratu eta balioan jarri dira, Zeraingo izaeraren oinarri bilakatu.

Egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa

Herriguneko paisaia osatzen duten elementu guztiek, hots, lorazaintza, etxebizitza zein bestelako eraikinak eta hauen adierazpenerako seinaleztapenak herria proiektatzen dute. Praktika onak ematen dira herrian eta irizpide egokiak ere egon badaude baina hauek biltzeko beharra dago bateratu eta etorkizunera begira herriguearen eta herriaren itxura definitzeko.

Bertako espezieen erabilera lorazaintzan

Zeraingo kaskoak duen kokapen ezin hobekak inguruko mendi, baso eta larreekin bat egiten duela argi ikus daiteke. Honen ondorioz, ezinbestekoa ikusi zen garai batean landa eta mendi paisaia kaskoan integratzea eta horretarako, landare exotikoak kentzen hasi eta pago, hagin, gorosti eta bestelako bertako espezieez ordezkatuak izaten hasi ziren. Ekimen honek herriaren izaera aldatu gabe, hobekuntzak ekarri dizkio.

Dentsitate txiki eta ertaineko etxebizitzak

Historikoki herriak izan duen itxurari errespetua agertuz, dentsitate txikiko familia bakarreko etxebizitzetan oinarriturik eraiki da herrigunea. Hala ere, herriak izan duen eskaerak ere eragina izan du eta familia desberdinak biltzen dituzten eraikinak ere eraiki dira, beti ere, herriaren behar zein ingurunearekiko errespetuaren arteko orka bilatuz. Honek, herrian populazioa egonkortzeaz gain, nortasun urbanistikoa zaindu du.

Kaskoko ondarea

Udalerrriaren mugen barnean barreiaturik elementu ugari egoteaz gain, Zeraingo herrigunearen baitan elementu ugari biltzen dira. Donejakue bidearen baitan, Zerain-Segurako galtzada, Jasokunde Ama Birjinaren eliza, Olabide baserria, Bolatokia, San Blas basiliza, Udaletxea, Zabalegi hilarria eta Zeraingo herri-gunea (Jauregi etxea, Benefiziaune etxea, Bikario-enea eta Benefiziaune etxea) babesten dira. Ikus daitekeen bezala, ondare aberatsa dago kaskoan eta babesteaz gain, bere baldintza eta balioa mantendu behar da.

Herriko seinaleztapena

Herrigunetik doazen ibilbide desberdinak eta garai zein izaera desberdineko ondare guztiak ezagutzera emateko jarri diren informazio plaka, panel, gezi, margo, mahai eta bestelakoak oso balagarriak dira elementu interesgarri guztiei buruzko informazioa izateko. Denborarekin, elementu hauek kaltetuak izaten dira eta gainera, izaera desberdinekoak direnez, itxura

aniztasun handia agertzen dute. Beraz, seinaleztapenaren mantentze-lan, berritze eta koherentzia bilatu behar da.

Paisaiaren kalitate-helburuak

- Kasko eta herriguneko paisaiaren izaera mantentzea, etorkizunean bideratuko diren hirigintza eta lorazaintza proiektuek beharrezko integrazioa izan dezaten.
- Herriko ondarea balioan jartzeko seinaleztapena eguneratua mantentzea eta behar berriak asetzea, paisaiaren elementu garrantzitsu hauek modu egokian ulertuak izan daitezen.
- Udalak daraman lorazaintza estrategia jendarteratu eta herritarren artean sustatu, kasko osoaren paisaia integratua lortu ahal izateko.

Ekintzak

E3.1.1 Seinaleztapenaren berrikuspen eta eguneratzea:

Bai paisaia kulturala adierazi eta bere garrantzia azaltzeko dauden informazio elementuak egoera onean mantendu eta hautsi edo hondatutakoak ordezkatu. Era berean, egon daitezkeen gabeziak identifikatu eta hutsune hauek betetzea, adibidez, egungo lorazaintzari buruzkoak. Eta azkenik, kaskoaren paisaia integratua egongo den seinaleztapena integratzeko bideak bilatzea.

E3.1.2 Ondarearen inbentarioa:

Ondarearen legeari jarraiki, herri jabegokoak diren elementuen (herribideak, eraikuntzak) inbentarioa egitea, honen babes, mantentzea eta hobekuntza lanak bideratu ahal izateko.

E3.1.3 Ondarea mantendu eta berreskuratzea:

Herriko ondare arkitektonikoa mantendu eta berreskuratzeko eraikinen azterketak egitea eta hauetan oinarrituz beharrezko obrak burutzea, segurtasun irizpideak lehenetsiz.

E3.1.4 Herriguneko paisaiaren mantentzea:

Orain arte hirigintza eta lorazaintzak izan dituzten irizpideak eta hauen egokitasuna aztertu, mendialdearekin eta baserri paisaiarekin duten elkarrekintzaren hobekuntza bideratzeko.

E3.1.5 Herri lorazaintza herritarrengana helaraztea:

Herri mailan egiten ari den lorazaintza, hots, mendi eta baserriekin bateratua, jendarteratu eta herritarren artean sustatu, jabetza publiko zein pribatuko lorategiak ezaugarri amankomunak izan ditzaten.

P3.2 Arau Subsidiarioko isla

Herriguneko paisaia eta izaera mantentzea Zerain Paisaia Kulturalaren strategiaren barnean kokatzen da eta urteetan zehar jorratu diren ikasketak zein lan egiteko moduek etorkizuna izan behar dute. Helburu orokor honen baitan, ezinbestekoak dira babes irudiak, azken finean, hauek hartzen baitira kontuan plangintzak garatzeko orduan. Arau subsidiarioak dira hasera puntua, baina haratago doazen babesak lortzea beharrezkoa da.

Egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa

Herriguneko elkartzeko dira hirigintzarekin lotutako elementuak gehienak eta hauek antolatu ezean, desorekak sortu daitezke. Elementu esanguratsuenak hirigintza azpiegiturekin, trafiko erauzteko zein lorazaintza egiteko moduekin eta seinaleztapen ereduarekin erlazionaturik daude. Hauek identifikatu eta Arau Subsidiarioetan isaltu behar dira herriguneko antolatu eta eder bat helmuga izateko.

Hirigintza azpiegiturak

Hirigintza elementu adierazgarrienak Arau Subsidiarioetan eta Donejakue bidearen baitan babestuak daude eta izaera honek etorkizuna bermatzen die. Hala ere, garrantzitsuak izan daitezkeen gainontzeko elementu guztien azterketa egin behar da, inolako hutsunerik egon ez dadin. Arau Subsidiarioetan islatzea, haserako pausu gisa hartu behar da eta onarpen zein babes sendoagoa eskainiko dien irudiaren alde egin beharko da. Hala ere, eskola, haur eskola, medikua eta bestelako zerbitzuak babestu gabe daude eta herritarrentzako garrantzitsuak dira.

Egiteko moduak

Herrigunean lantzen diren bertako espezieetan oinarritutako lorazaintza eta garraioaren antolamendurako elementuak bezalako egiteko moduak, herriaren bereizgarri izateaz gain, barneratutako lan tresna dira. Egiteko modu hauek oso berritzaile zein aurreratuak dira gure jendartean eta herriaren garapenerako ezinbesteko oinarridira. Ondorioz, egiteko modu hauek babestea oso interesgarria da etorkizunera begira.

Seinaleztapena

Herrigunetik abiatu eta mendialdera bideratuta, hainbat eraikin, azpiegitura eta ibilbide proiektatzen dira. Guztiak jatorri desberdinekoak dira eta bakoitzak bere izaera izan behar du. Honek bainan, bixitarien nahasmena sortzen du eta nolabaiteko bateratzea beharrezkoa dela ikusirik, etorkizunera begira, bateratze hori Arau Subsidiarioetan jaso beharko litzateke, herri irudia sendotzeko asmoz.

Paisaiaren kalitate-helburuak

- Herrigunean dauden intereseko hirigintza azpiegitura guztiak Arau Subsidiarioetan babes irudia izan dezatela bermatzea, paisaiaren alderdi garrantzitsua osatzen baitute.
- Herrian dauden lorazaintza eta trafikoa eraentzeko moduak bezalako praktika onak herri mailako irudi bidez babestea, paisaiaren osagai garrantzitsu gisa.
- Herriguneko paisaia elementu hauek guztiak babesteko, Herriguneko Paisaia babes irudiaren baitan jasotzea, elementu hauen babesa taldekatua egon dadin.
- Herrigunea eta baserri paisaiaren arteko transizio guneak antolatzea, irizpideak ezarriz eta baserritarrak egoera berrira egokitzen lagunduz.

Ekintzak

E3.2.1 Intereseko eraikuntza guztiak Arau Subsidiarioetan jasotzea:

Kasko eta inguruan dauden eraikuntzen berrazterketa egin ondoren, babeserako interesa duten azpiegiturak identifikatu behar dira, bere ezaugarrien deskribapena egin ondoren, Arau Subsidiarioetan jasotzeko. Haserako pausoa da, etorkizunean haratago joateko.

E3.2.2 Herriko jardunbide egokien azterketa eta babesa:

Herrian garatzen den eta paisaiarekin zerikusia duten lorazaintza eta trafikoa eraentzeko neurriak bezalako beste ekimen aipagarri eta interesgarriak aztertu eta guztiak jardunbide on gisa jaso eta Arau Subsidiarioen bidez babestu.

E3.2.3 Seinaleztapenaren bateratze azterketa:

Paisaiaren adierazpenerako eta funtzionaltasuna bermatzeko erabiltzen diren seinaleak zeintzuk diren identifikatu, bakoitzak bete behar dituen baldintzak aztertu eta guztiak bilduko dituen diseinua prestatzea.

E3.2.4 Etorkizuneko eraikuntza pentsatu eta jasotzea:

Egungo egoera aztertuz, etorkizunera proiektatzen diren eraikuntzen izaera Arau

Subsidiarioetan jasotzea, etorkizuneko herri eredia eta paisaia bermatzearen.

E3.2.5 Paisaia Kulturala irudia sortzea:

Arau Subsidiarioen baitan, Herriguneko Paisaia Kulturalaren babes irudia sortzea eta honen baitan aipatu elementu hauek guztiak babestea, paisaiaren ikuspegia modu osatuago, ikusgarriago eta eraginkorrago batean islatua izateko. Honela, natura, kultura eta ekonomia ondare material eta inmaterial guztia paisaiaren baitan jasoko da.

E3.2.6 Transizio guneen garapena antolatzea:

Herrigune eta baserrien artean dagoen paisaiaren transizio gune hauetan egiten diren txabola, lanabesak gordetzeko eranskinak eta bestelako eraikin osagarriak arautu eta aurrera eramateko laguntza bideratzea jabeei.

E3.2.7 Ekintza Plana Arau Subsidiarioen ardatz izatea:

Zeraingo Paisaiaren Ekintza Plana Arau Subsidiarioen ardatza izatea, araudiari eta paisaiaren babesari ikuspegi berritzaile bat eskainiz.

P3.3 Herritarren zerbitzuak asetzea

Zerain Paisaia Kulturalaren oinarrietako bat Zeraingo herriaren eta herritarren izaera bermatzea izan da, usadioz hain garrantzitsua izan den lehen sektorea beste sektoreekin uztartuz. Produktu turistiko desberdinak sortuz, lehen sektoreko enpleguak biziberritu eta turismoari lotutako lanpostu berriak sortu dira. Honek populazioa emendatzea ekarri du eta, ondorioz, zerbitzu eskaintza bat ahalbidetzen du barnera zein kanpora begira. Bereziki garrantzitsua izan da zerbitzu mailan lortu diren lorpenak, aipagarrienak: eskola, haur eskola, mediku zerbitzua astean egun batzuetan eta ludoteka. Herriaren biziberritze honek naturan, kulturen eta ekonomian eragiten du, Zeraingo paisaian islatuz.

Egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa

Herri batek, bereziki biztanle txikikoa bada, bere izaera ez galtzeko populazioaren oreka bilatu behar du eta Zerainek lan egokia egin du urte hauetan guztietan. Enplegua mantentzeko zein sortzeko jarduera ekonomiko desberdinen arteko elkarrekintzak bultzatu dira eta honek, zenbait zerbitzu mantendu eta berriak sortzea ekarri du.

Herritarrentzako zerbitzuak

Ekonomia eta populazioaren dinamika honek, hainbat zerbitzu ere mantentzea eta biziberritzea ekarri du, besteak beste, denda, haur eskola, eskola, ludoteka, gaztelekua, mediku zerbitzua (astean ordu batzuetan) turismo bulegoa, kultur-etxea, ostatua eta harreragunea. Eskaintza honek berak, berriz elikatzen du ekonomia eta biztanlegoa, herriaren etorkizuna bermatuz. Hala ere, zerbitzu hauek mantendu eta ugartu egin behar dira ahal den heinean, horretarako neurriak bilatuz. Beste adibide garrantzitsua, Idiazabal, Mutiloa, Segura eta Zegamako herriekin elkarlanean abiarazi den etxeko egurra zerratu eta lantzeko zerrategia izan da, zeina etorkizunera begira, inguruko herriekin elkarlanean zerbitzuak sustatzeko oinarria izan daitekeen.

Eskaintza turistikoa eta enplegua

Herriko eskaintza turistikoa ugaria da, ostalaritza zerbitzuak ugartu dira, Arizti-Erdi aterpetxea eta Natur Eskola, Turismo Informazio Bulegoa, artisautza eta kalitatezko produktuen denda eta "Zerain.com" online denda sortu dira. Turismo sektorea indartzea lortu da herrian eta dagoeneko herriaren barne produktuaren zati garrantzitsu bat suposatzen du, zuzenki zein ez-zuzenki. Honek guztiak, enplegu sorrera ekarri du herrian eta, ondorioz, biztanlegoa erakartzea zein mantentzea lortu da, Gipuzkoako antzerako herrietan gertatu denaren aurka.

Hondakinen kudeaketa eta energia

Hondakinak eta energia etorkizuneko erronkak izanik, Zerainen ekimen desberdinak bideratu dira. Hondakinei dagokienean, hondakin organikoa ez biltzea du helburu, konpostaren bitartez guztia prozesatu baitaiteke, eta gainontzeko atalak, modu bereiztuan bilduko dira. Basoko hondakin edo zerrara eraman ezin daitezkeenekin herrigunea energiaren hornitzea bilatu da Biomasa galdara komunitarioa abiaraziz. Etorkizunean, hondakin eta energia uztartu daitezke, batez ere, energia sorkuntza gainontzeko hondakin organikoetara zabalduz. Era berean, gainontzeko energia berriztagarrien aldeko apustua egin beharko litzateke, ahalik eta energia gehien modu autonomoan lortzeko.

Paisaiaren kalitate-helburuak

- Turismoaren inguruan sortu diren enpleguak eta bideratutako ekimenak aztertuz, ekimen berriak bilatzea edo daudenak garatzea, enplegua bermatu eta hobetzeko asmoz.

- Herriarentzako zerbitzuak hobetzea, herritarren bizi kalitatea hobetzeko eta, bide batez, bixitariei eskaini ahal izateko, eskaintza honek herri izaera eta paisaia mantentzen lagunduko baitu.

- Era guztietako hondakinen kudeaketa egokia egitea, hondakinak gutxitu eta lehengai bihurtuz, paisaian duten eragina gutxitzeko.

- Paisaiaren eta ekosistemen emana balioan jartzeko, biomasan oinarritutako energia ekoizpena sendotzea herrian, bertako baliabideak erabiliz eta beste energia berriztagarriak sustatzeko neurriak hartuz, beti ere, errentagarritasuna kontuan hartuz.

Ekintzak

E3.3.1 Turismoan oinarrituriko enplegua sustatzea:

Orain arte egindako bidearen azterketa sakona egin, ekimenak birpentsatu eta etorkizunera proiektatu efizientzia hobetze aldera eta enplegua sortze aldera. Honek guztiak, paisaiaren kalitatea hobetzeko emanak ekarriko ditu, bertako produktuen salmentan oinarrituz.

E3.3.2 Herrian dauden zerbitzuak mantendu eta ugartzea:

Herritarrek izan ditzaketen beharrak identifikatu eta hauek asetzeko beharrak bideragarriak badira aurrera eramatea, bide batez, bixitariari eskaintza hobetuz eta enplegua sustatuz. Bide azpiegiturak, eskola, haur-eskola, kutxazainak eta bestelako oinarritzko zerbitzuak beharrezkoak dira herriko bizitza eta paisaia mantentzeko. Ugartu edo hobetu behar dena, etxebizitza eta oinarritzko elikagaien eskaintza da.

E3.3.3 Biomasa energia garatzea:

Basoaren azterketa sakona egitea, biomasaren erabilera herri osoan egonkortzeko eta paisaia zein ekosistemen emanak modu eraginkorrean kudeatzeko. Baso biomasaz gain, abereen gorotz eta hondakin organikoak erabiltzea energia iturri gisa.

E3.3.4 Energia berriztagarriak sustatzea:

Biomasaz gain, energia lortzeko beste bideak ere aztertu behar dira eguzki-, ur- eta haize-energiak esaterako, beti ere, naturaren eta paisaiaren ikuspegi integratu batean oinarrituz.

E3.3.5 Energia aurrezte eta herriko baliabideak erabiltzea:

Herrian dauden biomasa eta bestelako ekosistemen emanak modu egokian kudeatuz eta "Central Heating" edo berokuntza zentralizatua sistemak erabiliz, herriaren eta herritarren energia erabilera gutxitzea, aurrezpen ekonomikoa bilatzeko.

I4 Ildo estrategikoa – Zerain Paisaia Kulturala

Zerain Paisaia Kulturala ildo estrategiko honen amaraunaren baitan aurreko atal guztietan landu eta proposatu diren asmo eta ekimenak borobiltzen dira. Azken finean, paisaia, natura, kultura, historia, ekonomia eta herri izaera elkarlotzen dira, hau da, Zerain Paisaia Kulturala ekimenaren egungo proiektzioaren laburpen gisa uler daiteke. Hurrengo lerroetan, Zeraingo eskaintza ezagutzeko ibilbideak, jarduera ekonomiko desberdinen arteko elkarlana, ondare eta balioen hedapena eta eragin negatiboen aurreko babesa lantzen dira.

P4.1 Paisaira hurbiltzeko ibilbideak sustatzea

Herrian barrena dauden altxorrek balioan jarri eta ezagutzera emateko asmoz, Zeraingo lurretan barrena doan ibilbide sarea prestatu da berariazko balioak ezagutzera emateko. Baina, era berean, ezin ahaz dezakegu ikuspegi orokorrago bat duten ibilbide desberdinek ere udalerria zeharkatzen dutela, Donejakue bidea, Gaztaren ibilbidea eta GR-34 Donostia-Arantzazu ibilbideak esaterako.

Ibilbide hauek Zeraingo natura eta kultura balioak josteko duten balioaz gain, herriko paisaia erakusteko tresna egokiak dira eta paisaia ikuspuntutik balio izugarria dute.

Egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa

Lurraldearen ezagutzan eta bertan jasotzen den ondarearen interesean oinarriturik, Zeraingo herria ezagutzeko interpretaziorako ibilbide mordoa diseinatu da. Ibilbide hauek sekulako garrantzia dute turismoaren sustapenean baina denboraren poderioz, ibilbideak sasiz betetzen dira, seinaleztapena hondatu egiten da eta informazioa zaharkitu egiten da. Ibilbide sare hau bi taldetan bereizten da: herri barruko ibilbide sare eta mundura zabaltzeko ibilbide sarea. Honetaz gain, programa honen baitan herriko muga eta mugarren definizioa barneratuko da, ibilbide sarearekin sustatu nahi de lurraldearen ezagumenduarekin estuki loturik dagoelako.

Herri barruko ibilbide sarea

Atal honen baitan, Zeraingo udalerriaren mugen baitan dauden eta Udalak zuzenki sustaturiko ibilbideak deskribatuko dira.

Zeraingo ibilbide botanikoen sarea

Zeraingo udalerriak balio natural eta kultural paregabeak ditu eta honen adierazle Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren mugen baitan egotea da. Balio botanikoa zenbaterainokoa den azaltzeko, bost ibilbide prestatu dira eta etnobotanikaren ezagutza dute ardatz.

Ibilbide sarea, herri kaskotik abiatzen da eta garai bateko gurdibide, estrada, galtzada eta gaur egungo bideak lotuz, udalherri osora zabaltzen da. SL (Herri ibilbideak) eta PR (Ibilbide motzak) bezala izendatu dira eta guztiontzat ezagunak diren markak erabili dira inor ez galtzeko.

Burdinaren Mendiko ibilbide sarea

Burdinaren Mendia bezala ezagutzen den Aizpeako meategia Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Monumentu Multzo izendapena du eta Aizkorri Aratz Parke Naturalaren barruan dago kokatua. Zeraindarrek, eskoletako haurrei eta herrira datorren bisitari orori eremu honen baitan jasotzen den meagintza jarduerari lotutako kultura eta historia ondarea ezagutzera emateko ibilbide sarea sortu da.

Lasurtegiko hezegunean barrena ibilbidea

2011. urtean Lasurtegiko hezegunearen hidrogeologia, botanika eta fauna ikerketak egin ostean, naturgune hau jendarteratzeko ibilbidea diseinatu eta egokitu zen. Egindako ekintzen artean, balizaia eta markazioa egiteaz gain, adierazpenerako mahai informatiboak jarri ziren

altxor honen baitan gordetzen diren balioak ezagutzera emateko.

Bizikletaz egiteko ibilbide sarea

Azken urteotan, Goierrik duen turismo aktiboko azpiegiturak hobetzearren, BTT edo mendiko bizikletaz egiteko ibilbide sarea diseinatu eta seinaleztatu da. Zehazki, sustatu den Beasain-Zerain-Beasain zirkuitua, izenak berak dioen bezala, udalerrian barrena doa eta egun dagoen eskaerari erantzuten dio.

Mundura zabaltzeko ibilbide sarea

Atal honetan, ezaugarri eta jatorri desberdineko ibilbide desberdinak jasotzen dira: ibilbide laburrak (PR), ibilbide luzeak (GR), BTT ibilbideak eta Donejakue bidea. Guztiek ordea, Zeraingo mugak gainditzen dituzte eta ingurunea zein munduarekin lotzeko baliagarriak dira.

Donejakue bidea

2012ko urtarrilaren 10ean, 2/2012 dekretuaren baitan Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatu da eta XXI. mendeko ibilbidea finkatzen da, kostako bidea eta San Adriango Tunelaren Bidea.

San Adriango Tunelaren Bidea deritzon ibilbidea Zeraingo herritik pasatzen da, eta honi atxikitako ondasunak ere babestu eta jasotzen dira aipatu dekretuan. Hauen artean Zerainen Zerain-Segurako galtzada, Jasokunde Ama Birjinaren eliza, Olabide baserria, Bolatokia, San Blas baseliza, Udaletxea, Zabalegi hilarria eta Zeraingo herri-gunea biltzen dira.

Azken hau da, Itziarkoarekin batera, hiribildua izan gabe Donejakue bideari atxikita babestu den hiri-gune bakarretakoa. Kaskoarekin batera babesten dira Jauregi etxea, Bikario-enea eta Benefiziaune etxea.

Gaur egun bide honek erakarrita makina bat erromes pasatzen da Zeraindik eta askok bertan ostatu hartzen dute hurrengo etapa hasi aurretik.

Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko ibilbide sarea

Azken urteetan Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren baitan ingurunea eta bere balioak ezagutzera emateko 10 ibilbide labur (PR) prestatu dira eta horietako batzuk Zeraingo lurretan barrena doaz. Sortutako azpiegitura honek herriak duen eskaintza hobetzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko naturgune honen eta Zerainen arteko lotura ezagutzeko baliagarriak dira.

Gaztaren ibilbidea - GR 283

Lizarrustiko parketxean hasi eta amaitzen den Gaztaren ibilbidea deritzon GR-283 ibilbide luzearen 3. etapa Zeraingo herrian barrena doa. Etapa hau Seguran hasi eta Mirandaolan amaitzen da eta artzantza zein gaztagintzan lurraldeak duen garrantzia ezagutzeko interes handiko eremua da, besteak beste, negu eta udara arteko larratze belazeak oso ugariak baitira eremu honetan.

GR-34 Donostia Arantzazu

Zeraingo herrian barrena doan beste ibilbide luzea GR 34 Donostia-Arantzazu deritzona da eta kasu honetan ere ibilbidearen 3. eta azken etapa igarotzen da Zeraindik. Ormaiztegin hasten da etapa eta Arantzazun amaitzen da eta herriak duen kokapen estrategikoaren adierazle dugu.

Zeraingo mugak zehaztu eta kokatzea

Herritar talde batek, Oa Kultur Elkarteak bultzatuta, 2012 eta 2014 urteen artean Zerainek, Segura, Mutiloa, Legzpi eta Zegamarekin duen herrimuga ezagutzeko azterketa abiarazi zuen.

Horretarako, aurretik mugen inguruko ezagutzak baliatuz, mugarren bilaketa fisikoa egin du. Topatutako mugari bakoitzari argazkia atera zaio eta bere geokopakena lortu da. Guztira, bost etapa desberdin egin dira eta beste bi aurrikusten dira. Azkenik, Zerainek Mutiloarekin duen mugariak ezagutzera emateko urtekarin argitaratu ziren..

Paisaiaren kalitate-helburuak

- Paisaira hurbiltzeko eta ezagutzera emateko ibilbide sarea bere osotasunean eta modu egokian egiteko baldintzak bermatu eta ahal den heinean hobetzea.

- Ibilbidearen baitan dauden paisaiaren elementuak babestea eta balioan jartzea.

Ekintzak

E4.1.1.- Bideen mantenu-lanak:

Paisaiaren adierazpenerako ibilbide sare honen baitan dauden errepide, pista, baso-pista, bidetxur eta bestelakoak modu egokian mantendu behar dira belarrak eta sasiak kenduz, zuloak estaliz eta irisgarritasuna bermatuz. Hala ere, kontuan izan behar da irisgarritasun mota desberdinerako mantenu-lan egokitua behar dela.

E4.1.2.- Paisaiaren adierazpenerako azpiegiturak egoera onean mantentzea:

Paisaiaren elementu aipagarriak ezagutzeko ibilbide sareak eskaintzen duen aukera paregabeaz baliatuz, adierazpenerako dauden azpiegiturek balio erantsia ematen diote baina denboran zehar, kaltetu egiten direnez konpondu eta berritzeaz gain, inguruan dauden sasi, belar eta bestelakoak txukundu behar dira.

E4.1.3.- Balizaia eta markazio egokiak bermatzea:

Paisaia desberdinak ezagutzera hurbiltzen diren ibiltariak lasai eta seguru ibil daitezen, ibilbidean egon daitezkeen orientazio arazoak ezabatu behar dira eta horretarako zutikako balizaia eta margo seinaleztapenak egoera onean mantendu behar dira.

E4.1.4.- Ibilbideak izan ditzakeen beharren azterketa:

Bai ibilbideak mantentze aldera, zein paisaiaren adierazpenerako azpiegitura beharrak asetzeko eta seinaleztapena bermatzeko asmoz, ikerketak maiz egin behar dira, hartu beharreko neurriak definitzeko baita ekimen berriak sustatzeko ere.

E4.1.5.- Herrimugak zehaztea eta geografikoki kokatzea:

Falta diren bi etapak egitea, Zerain inguratzen duen muga erabat definitzeko eta honi behar duen funtsa emateko, informazio geografikoko sistemetan islatuko dira eta dagokion txostena idatziko da, Zeraingo paisaia geografikoki modu egokian kokatzeko.

P4.2 Jarduera ekonomikoaren arteko elkarlana

Arrazoi desberdinak direla eta lehen sektoreak izan duen gainbehera gainditzeko alternatibak bilatu dira eta Zerain horretan ere aitzindaria izan da, urteak baitaramatza lehen sektorea eta hirugarren sektorea uztartzen bideragarritasun ekonomiko bat lortzeko, herriaren nortasuna babestuz eta bertan dauden ingurumen zein kultura balioak indartuz. Produktu turistiko hauen bitartez, herrian enplegua sortu eta lehen sektorea mantentzeko ekimen osagarriak bultzatu dira.

Egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa

Turismoarekiko egin den apustua izan da Zeraingo egungo garapenaren oin garrantzitsuenetako bat, zeinaren bitartez, lanpostuak sortu dira, eskaintza hobetu da eta herri estimua sendotzea lortu da. Ekimen eta produktu interesgarriak daude baina jarduera honen eskakizun maila handia denez, eskaintza berraztertu eta hobetu behar da modu jarraian.

Egungo produktu turistikoak

Zeraingo egoera sozioekonomikoa lagundu duten produktuak, besteak beste, harrera-gunea, turismo informazio bulegoa eta bertako produktuen denda, museo etnografikoa, Aizpea Meategiak eta Aizpitta adieraztegia, ibilbide tematikoak eta homologatuak, Donejakue bidearen harrera-lekua, Gazta eta Sagardoaren mendia eta Natura eskola dira. Produktu hauen jarraipena egitea beharrezkoa da, lehen eta hirugarren sektoreko lanpostuak bermatzeko. Honen adibide dira, turismo gidak, bisita pedagogikoak, jatetxeak, nekazal turismo etxeak, aterpetxeak, baserrietako bisitak, Donejakue bidea eta abar.

Paisaiaren kalitate-helburuak

- Dagoeneko herriak duen paisaian oinarrituriko eskaintza turistikoa hobetu, orainarteko ibilbideari jarraiki ikerketak eginez eta etorkizunera begira proposamen berriak eginez.
- Turismo mota honen eskaintza garatuz, enplegu gehiago sortu eta dagoena indartzeaz gain, lehen sektorearen biziraupena bermatzeko ekimenak bultzatzea, gure paisaiaren zainzaileen bizi baldintzak hobetzeko.

Ekintzak

E4.2.1 Produktu turistikoak hobetu:

Dagoeneko abiarazita dauden paisaian oinarrituriko produktu turistikoaren eraginkortasuna hobetzeko jarraipena egiteko ikerketak abiaraztea, etorkizunera begira hartu beharreko neurriak identifikatu eta sustatzeko.

E4.2.2 Baserri adieraztegi sarea sortzea:

Produktu turistiko berri gisa, baserri adieraztegi sarea ekimena sustatzea, honen bitartez lehen sektorean lan egiten duten pertsonen diru-sarrerak osatu baitaitezke. Baserritarren formakuntza eta laguntzarekin, bixitarien beste eskaintza osagarria eskaini ahal izango zaio. Trukean baserritarrak etekina lortzeaz gain, herriaren eskaintza hobetzea lortuko da, bixitari kopurua emendatuz eta bere jardunaz, paisaiaren kalitatea hobetuz.

E4.2.3 Jarduerak uztartzeko produktuak sortzea:

Eroslea ekoizlearekin elkarlotzen dituzten Gazta eta Sagardoaren Mendia edo Burdinaren Mendia bezalako esperientzia berriak bilatu eta abiarazi, lehen sektoreko jarduera bultzatuz gure paisaia zaintzen baita.

E4.2.4 Produktuen jendarteratzea:

Eskaintza hobetu eta emendatzeaz gain, jendarteratze prozesua bera osatu eta indartu behar da, eskaintzaren ezaugarri eta baldintzak berrituz, sektorea indartzeko.

P4.3- Zeraingo paisaiaren bioaniztasuna jendarteratzea

Egun, Zerain bezalako landa eremuko herri txiki baten jendarte zein ekonomiaren garapena paisaian oinarri duen turismoari loturik dagoenez, udala sektore hau indartzen dabil azken urteotan eta, ondorioz, Goierri, Gipuzkoa eta Euskal Herriko turismo baliabideen artean aitzindaria da.

Etorkizuneko jomuga izan behar du natur eta landa paisaiari loturiko turismoa garatzea, lehen sektorearekin uztartuz eta herri identitatea mantenduz. Honek guztiak, paisaiaren mantentze eta egokitzea ahalbidetuko du, herritarren bizi-kalitatea eta bixitarien aisialdia bermatuz.

Egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa

Jendarteratze prozesuan ekimen ugari garatu dira Zeraingo Udalaren eskutik: informaziorako, adierazpenerako eta ezagutzarako guneak eta material fisiko zein digitalak. Jendarteratze prozesuak jarraiak dira eta eskaintza eguneratzea zein berritzea kontuan izan beharrekoa da. Horregatik, baliabide guztiak eguneratuta eta eskuragarri izan behar dira.

Informazio bulegoa

Zeraingo kaskoan kokaturik, udalerrri honek eskaintzen duen paisaia, natura eta kultura aberastasuna ezagutzera emateko ezinbesteko azpiegitura da. Hemendik abiatzen da amaraunean barrena ibiliko den eta Zeraingo berezkotasuna ezagutzera datorren jendea. Bertan, aipatu ibilbideei buruzko informazioa eskura izateaz gain, paisaia osatzen duten elementu guztiak ulertzeko materialak izaten dira, besteak beste, naturguneak, habitat zein espezieak, eraikin historikoak, landa eremuak, basoak e.a.

Adieraztegia

Aizpeako meategien lehenengo erreferentziak XII. mendera garamatza, eta ordutik hasita, 1951. urtean gaur egun ikus daitezkeen labeak itxi ziren arte, burdin meategiak oso lotuta egon dira Zeraingo herriarekin. Mende hauetan guztietan zehar jardun zabala izan dute meategiek eta jauntxoek esku izatetik, ingeles mendera aurrenik eta alemaniarrenera gero izan ziren Aizpeako meak.

Burdinaren Mendiak meagintzaren aztarna interesgarri ugari gordetzen ditu: lurrazpiko galeriak, lokomotoraren errailak... Historia hori guztia eta burdingintzaren prozesua ezin hobeki azaltzen dute Aizpittako Adieraztegiko aretoek, ikus-entzunezko eta erakusgela modernoek bitartez.

Aizpitta Adieraztegia Burdinak Euskal Herrian, Zerainen eta inguruetan izan duen garrantziaz ohartarazten lagunduko digu. Gure mendietan, XI. mendetik hasita burdinaren ustiaketa, gaur egungo paisaian, bertako ekonomian, jendartean, arlo soziokulturalean eta abarretan nolako eragina izan duen azalduko digu.

Herri museoa

Museo txiki honek Goierriko herri honen bizimodu eta ohituren bilakaera azaltzea du helburu. Atal desberdinetan, herriaren prozesu historikoa adierazten duten tresna, altzari, lanabes, dokumentu, e.a. biltzen dira, garai bateko nekazaritza eta artzaintzatik hasi eta, meagintza garaitik igarota, gaur egunera arte. Orain gutxi, gainera, museoko eduki guztiak era digitalean azaltzen dituen ikus-entzunezko multimedia berritzailea jarri dute bisitarien ikusgai. Zeraingo Herri Museoa herritarroei esker osatu ahal izan da, erakusgai denak borondate osoz eskainiak izan direlako sortu baita.

Herriaren hedapena

Zerain Paisaia Kulturala ekimena abiaratu zenetik, Zeraingo natura, kultura eta historia ondare material eta inmaterialari buruzko argitalpenak ugariak izan dira. Hedapenerako, webgunea erabiltzeaz gain, eskuorriak, adierazpenerako informazio mahai zein panelak, unitate didaktikoak, planoak eta bestelakoa argitaratu dira. Baina hauek bezain garrantzitsuak edo gehiago, herritar, bixitari eta eskoletako ikasleei azalpen zuzenak ematen dizkieten gidari taldea da. Dagoen informazioa ugaria da baina kasu batzuetan zaharkiturik dago eta bixitak ere egungo egoerara moldatu behar dira.

Paisaiaren kalitate-helburuak

- Zeraingo paisaia kulturala ezagutzera emateko baliabide eta azpiegiturak egoera onean eta eguneratuta mantentzea, paisaiaren interpretazio egokia bermatzeko asmoz.
- Paisaiaren interpretaziorako elementu berriak bilatzea eta jendarteratzeko zein hezkuntzarako materialak sortzea.

Ekintzak

E4.3.1.- Paisaiaren balorean eta bioaniztasunean oinarritutako ekosistemaren emana areagotzeko ikerketak eta ekimenak sustatzea:

Lurrak publikotzen jarraitu, ikerketak garatu eta bertako espezieetan oinarritutako landaketak egin, paisaiaren emanaren neurrira diseinatuz. Paisaiaren ekosistema desberdinak ezagutu, sortzen diren emanak aztertu eta errentagarritasun handiena bilatuko da, jarduera desberdinak uztartuz: larre eta baso-larreak, erosioaren aurkako babesak, biodibertsitatearen zaintza, perretxiku bilketa, biomasa, aisialdia e.a.

E4.3.2 - Zerain Paisaia Kulturalaren ezagutzan sakontzeko ikerketak egitea:

Zeraingo paisaia eraiki duten ekonomia jarduera, kultura, historia eta, nola ez, berezko naturak garrantzia handia dute eta ezagutza sortu bada ere, sakondu beharra dago etorkizuneko paisaia honen ondorio izango baita.

E4.3.3.- Jendarteratze eskuorri eta materialen edizioa:

Ezagunak diren paisaia kulturalaren elementu aipagarriak buruzko jendarteratze materialak eguneratu egin behar dira eraginkortasuna izan dezaten eta era berean, berriak sortu behar dira. Honen baitan, elementu eta gai zehatzei buruzko ikerketak egiteaz gain, paisaiaren adierazpena erraztuko duten planoak ere sortu behar dira.

E4.3.4.- Unitate didaktikoak prestakuntza lanak:

Paisaiaren adierazpen eta ulermen sakonagoa unitate didaktikoen eskutik dator eta hauek adin eta publiko desberdinetara egokitu behar dira. Publiko guztietara iritsi ahal izateko hutsuneak bete behar dira unitate didaktikoak egokituz baita prestatu daitezkeen unitate berriak eginez ere. Herriko natura, kultura, historia eta paisaia balioak ezagutzera eman eta honekin loturik dauden nondik norako guztiak azalduko dituen Unitate Didaktikoa prestatu herritar zein bixitariarentzat. Ildo honetatik jarraituz, basogintzari buruzko unitate didaktikoa egingo da, bereziki interesgarria baita.

P4.4- Zeraingo paisaia kaltetzen duten eragin negatiboak saihestea

Paisaia Kulturala aipatzen dugunean, jendearen ondorioz eratu den eremu geografiko baten izaeraz ari gara baina, jendearen eragina maila edo jatorri desberdinetakoa izan daiteke. Zerainek mantendu zein berreskuratu nahi duena, nekazaritza eta abeltzantzan oinarrituriko paisaia da, nahiz eta, jarduera protoindustrialeko beste jardueren azterketa ere paper garrantzitsua izan. Hala ere ekiditu ezin daitezkeen jendearen zein natur eragin negatiboak ematen dira eta hauek saihesteko neurriak hartu behar dira.

Egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa

Paisaiak zahurgarritasun handia du hainbat eraginen aurrean eta bi taldetan sailkatu ditzakegu eraginak: naturalak eta antropikoak. Eragin naturalen aurrean, sustatzen ari den baso kudeaketak eraentzeko baliagarria da baina zahurgarritasun honi buruzko informazio gutxi dago. Bestetik, eragin antropikoa aurrikustea zaila da eta interes orokorreko proiektuak edonon txerta daitezke. Honen aurrean, tentsio handiko linearen aurrean herri eta herritarren indarrak bateratu dira eta oso positiboa izan da.

Jatorri naturaleko eraginak

Paisaia eta klimatologia zehatz honi loturik hainbat eragin natural egoten dira eta hauek ekiditea zaila bada ere, saihestu edo murrizteko neurriak har daitezke. Sute, uholde, lubizi, haizete eta bestelakoek gure paisaian eragin negatiboa izan dezakete eta kasu askotan aurrikustea ezinezkoa bada ere, beste kasuetan arriskua antzeman daiteke eta, ondorioz, babesteko edo prebentzio neurriak har daitezke.

Jatorri antropikoa duten eraginak

Era berean, jatorri antropikoa duten eragin negatiboak, batez ere, Udalaz gaindiko erakundeek sustatutakoak berebiziko garrantzia dute. Honen adibide argia Zerain zeharkatzera doan tentsio handiko linea da, baina honetaz gain, nork daki etorkizunean autobide, ur-biltegi, harrobi, industriagune, gasbide edo bestelako azpiegituraren bat proiektatuko den inguruan. Azken finean, honelako azpiegiturek Zeraingo izaera eraldatuko lukete eta eskaintzen duen kalitatezko paisaia erabat kaltetuko litzateke.

Paisaiaren kalitate-helburuak

- Zerainek duen kalitatezko landa paisaia eta izaera mantentzeko eragin natural negatiboetatik babesteko neurriak hartzea, zahurgarritasunari buruzko ikerketetan eta jendearen ezagutzan oinarrituz.

- Ahal den heinean Zeraingo Paisaia Kulturala eragin negatibo handiko azpiegituretatik babestea, barne araudian eta akordioetan oinarrituz.

- Paisaia ematen diren distortsio horiek saihestea, besteak beste, natur hondamendiak, txabola eraikuntzak eta zabor pilaketak antolatzen eta ekiditzen saiatuz.

Ekintzak

E4.4.1.- Eremu zahurgarriak identifikatu eta karakterizatzea:

Ibai bazterrak, ahultasuna duten baso eremuak eta lubiziak izateko potentzialitate handiko eremuak identifikatu eta zahurgarritasuna karakterizatzea.

E4.4.2.- Zahurgarritasuna gutxitzeko neurriak hartzea:

Paisaiaren zahurgarritasun karakterizazioan oinarrituz eta urtean zehar ematen diren kalteei aurre egiteko neurriak hartzea, horretarako diru-funtsak jarriz eta laguntzak bilatuz. Udalaren eskumenekoak ez diren lurretan, akordioak bilatuko dira beste erakundeekin.

E4.4.3.- Babes irudietan eragin antropikoetatik babesteko oinarriak jartzea:

Arau Subsidiarioetan sortzen edo berregituratzen diren babes irudietan, paisaian eragin handia duten azpiegituren eraikuntza ekidin eta paisaia babesteko baldintzatzaileak gehitzea.

E4.4.4.- Eragin antropikoetatik babesteko akordioetara iristea:

Udalaz gaindiko erakundeek sustatzen dituzten eragin handiko proiektuak herritik urrundu edo izan dezaketen eragin paisajistiko edo bisuala gutxitzeko akordioak bilatzea sustatzaileekin eta inguruko herrieekin elkarlanean aritzea azpiegitura hauei aurre egiteko, tentsio altuko linearen arira.

E4.4.5.- Lur-zaintzailtza:

Jabe pribatu zein herri lursailei erabilera eman asmoz, kudeaketaz arduratuko den

zaintzailletza erakundeekin akordioak bilatuko dira, paisaiaren mantentzea eta berreskurapena bideratzeko. Akordio hauek bilatzeko garaian, Paisaiaren Ekintza Plan honetan proposatzen diren helburuak betetzea ezinbestekoa izango da, natur eta kultur ondarearen kalitatea hobetzeko eta, honekin batera, baserritarren aldeko ekarpenak bilatzeko.

5. ZABALKUNDERAKO ETA ETORKIZUNERAKO PARTE-HARTZEA

5.1 Usadiozko parte hartzea

Zerain Paisaia Kulturalaren arrakastak herritar guztien parte-hartzean du oinarri, eta hiru hanka nagusitan oinarritzen da

- Udalak Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko ekimenak eta udal zerbitzuak bultzatzen ditu.
- Oa Kultur Elkarteak: Herriko beste taldeekin batera (guraso elkarteak, baserriarren elkarteak, ehiza eta arrantza elkarteak, gazte eta jubilatuen...) dinamika eta kohesio sozialaz eta herri nortasuna lantzeaz arduratzen da.
- Zerain Dezagun Fundazioa: Landa inguruetako jendarteak osatzen duen pertsonen iraupen soila duintasunez bizitzeko aukera bilaka dadin, ekimen sozial eta prozesu mikroekonomikoak dira sustatu beharrekoak. Lehen sektorea eta hirugarrena uztartuz, herriaren garapen sozioekonomikoaz arduratzen da Fundazioa.

5.2 Parte hartzea presentziala

Hau guztia erakunde eta talde askoren inplikazio eta laguntzarekin bakarrik lortzen da. Hauen artean daude, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako hainbat departamendu (Kultura, Turismo, Landa Garapena, Lurralde antolaketa, ingurumen eta berrikuntza besteak beste) eta Espainiako Gobernuaren Sustapen departamendua.

Modu jarraian egiten den partaidetza hau sendotzeko eta etorkizunera begira lortu nahi den paisaia definitzeko asmoz, partaidetza prozesu bat definitu da hurrengo helburuak betetzeko:

- Zeraindarrek definitutako etorkizuneko paisaia honen norabidea definitzea. Honetarako berau mantentzeko edota aldatzeko sortu, kontserbatu edota asmatu behar diren jarduerak jasotzea.
- Etorkizuneko paisaia eta paisanajea bat egiteko oinarriak ezartzea.

Helburu hauek guztiak betetzeko, bilera desberdinak egin ziren herritarrekin eta egun zein ordutegi desberdinetan finkatu ziren hitzorduak erraztasun handiena izan zezaten. Parte-hartzaileen artean, nekazari, abeltzain, lurjabe, basozale, nekazalturismoen jabe eta herrigunean bizi diren adin desberdinetako gizon-emakumeak izan ziren.

Saio hauetarako, maila teknikoan prestatutako proposamenak eta ekintzak herritarrei azaltzeko, parte-hartze txosten batean islatu ziren, hizkuntza arin eta xume batean. Era berean, parte-hartze saio bakoitzaren hasieran, egindako lanaren testuingurua eta eztabaidarako gaiak azaldu ziren, ulertze ez ziren alderdiak argituz. Ondoren, parte-hartzaileei euren iritzia eta ekarpenak azaltzeko tarteak irekitzen zen gai desberdinak eztabaidatzeko.

Saio hauetara etorri zirenetzat, parte-hartze dokumentua Udaletxean egon zen eskuragai, non, nahi zuen orok txostena hartu zezakeen aztertu eta bere ekarpenak egiteko.

5.3 Online parte hartzea

Azkenik, Zerain Paisaia Kulturalaren webgunea eta honi lotutako sare sozialak erabili dira, Zeraingo Paisaiaren Ekintza Plana parte-hartze prozesuaren berri emateko eta txostenak eskuratu eta ekarpenak egiteko prozeduraren berri izateko.

5.4 Prozesuan zehar jasotako ekarpenak

Parte-hartze prozedura honen bitartez, ekarpen ugari jaso dira eta maila tekniko zein politikoan aztertu ondoren, txostenean barneratuak izan dira guztiak. Ekarpen asko proposamen edo ekintza orokorretan jasoak zeuden modu orokorrago batean eta zehaztu egin dira. Gaintzekoak, gehituak izan dira. Hurrengo lerroetan, egindako ekarpena jasotzen dira:

Egindako ekarpenak

1. Lursailak publikotzerakoan baserritarren beharrei begiratu behar zaio, jasotzen diren diru-laguntzak lursail eta eremuen arabera baitira.
2. Ikasle eta bisitariekin baserri mundua ikustera joatea interesgarria ikusten du, nahiz eta kasu batzuetan baserriko lanarekin bateraezina dela pentsatu.
3. Aizkorri-Aratz Parke Naturalak baso-landaketan kudeaketan jar ditzakeen baldintzen beldur da, baita bereganatuko dituen ere, eta informazioa eskatu dute.
4. Satorrekin arazoak dituzte, belazeetan ugaritu egiten direlako eta listeria bakteriarren transmisioa bideratzen dutelako. Bakteria honek listeriosis gaixotasuna sortzen du eta gaztaren bitartez irits daiteke giza-emakumeetara. Satorren aurkako neurriak hartzeko baimena izatea eskatzen dute, batez ere, belarra biltzeko garaian.
5. Basurde eta orkatzekin arazoak dituzte eta horiek kontrolatzeko akordioetara iristea eskatzen dute.
6. Baserritarrek su-egurra ateratzeko arazoak dituzte eta baliabide hori erabiltzen dute energia iturri gisa. Euren basoetan haizeteen ondorioz erorian edo argi zein elektrizitate kableak ikutzear dauden zuhaitzak mozteko tramitea erraztea eskatu dute.
7. Baserritarrekin dagoen harreman eta koordinazioa hobetu behar dira, kontuan hartuak ez direla uste baitute.
8. Baserri eta auzo urrunduetako biztanleei informazioa gehiagotan helarazi behar dio Udalak, adibidez, buzoneoa maiztasun batekin. Era berean, auzo desberdinen eta herrigunearen arteko kohesioa bilatu behar da.
9. Baserritarren jarduera laguntzeko bertako ekoizleen produktuak diruz lagundu lagundu behar dira, salmentak igotzeko eta baserritarren diru-sarrerak duinak izan daitezten.
10. Auzoetan inbentarioak egin behar dira orokorrean baina bereziki bideak konpontzeko eta ura modu egokian bideratzeko,.
11. Udalak herriko gainazaleko urak eta ur-zikinak modu egokian bideratzeko lanak egin behar ditu, horrela lubiziaz saihestuko baitira eta baserrien ur-zikinei konponbidea emango zaie. Aizpe Goikoan eta Otatza auzoetan zein Zerain osoko paisaia mantentzeko ezinbesteko eta premiazko neurria dela adierazi da.
12. Baso itxiak baso ireki edo baso-larre bihurtzea eskatu da, artzantza eta beste jarduerak eremu hauetara zabaltzeko. Baserritarrei lurrak eskaini behar zaizkie ganadua botatzeko. Partzuergoaren baitan dagoen Beunde eremua da baso-larre hauek jartzeko eremuetako bat.
13. Egiten den eta proposatzen den lorazaintza mantendu daiteke baina segurtasunari lehentasuna eman behar zaio, adibidez, gorostiak haur parkeen ondoan jartzea ez da egokia haurrek min hartu baitezakete.
14. Honekin loturik, herriguko ondarea, hirigintza eta paisaia kudeatzeko garaian, lehentasuna eman behar zaio segurtasunari.
15. Herriguneko eraikinak eta eremu desberdinak adierazteko trafikoarentzako seinalez tapena hobetu behar da, datorren jendea herrian bueltaka ibili ez dadin.
16. Ibilbide turistikoak egiten, bisitariak galduta ikusi izan dituzte eta hau ibilbide desberdinen mantenu-lan eta markazioaren jarraipen txikiaren ondorio dira. Egoera hobetu behar da.
17. Herriko denda eta bestelakoak lagundu behar dira baina, denborarekin, errentagarritasuna bilatu behar da.
18. Turismoan oinarritutako enplegua, herrian dauden zerbitzuak mantentzea, biomasa eta beste energia berriztagarriak garatzeko, ondo planifikatu eta errentagarriak

bihurtu behar dira.

19. Zerain lo egiteko leku bilakatzen ari da eta elikagaiak herrian bertan eskuratzeko beharra dago, garai batean arraina, fruta eta barazkiekin egiten zen bezala eta egun ogiarekin egiten den bezala. Batez ere, herritar adinduei begira egin behar da.
20. Herriko ekoizle eta herritarren arteko lotura hobetu beharko litzateke, gutxienez zenbait produktu modu zuzenean eskuratzeko.
21. Etxebizitza hutsak bete egin behar dira edo irtenbideren bat eman behar zaie.
22. Momentu honetan salgai dauden etxebizitzak oso garestiak dira eta gazteek ezin dituzte erosi. Zeraingo gazteek egun etxebizitzak alokatu eta erosteko zailtasunak dituzte eta etorkizunean ere izango dituzte, neurriak hartzen ez badira.
23. Eskolak, medikuak eta oinarrizko zerbitzuak herrian mantendu behar dira, eskolek batez ere giroa sortzen dutelako plaza inguruan eta bestela jendea kanpoan denbora gehiago egongo delako.

I Eranskina

Zeraingo Paisaiaren Ekintza Planaren kartografia

II Eranskina

Behatokitako ikuspegi argazkiak

1 Arripiletako ikuspegia



2 Segurako harresiko ikuspegia



3 Lierniako ikuspegia



4 Barbariko errepideko ikuspegia



5 Udaltxeko aparkalekuko ikuspegia




6 Herriko plazako ikuspegia



7 San Blas ermitako ikuspegia



8 Aizpeako adieraztegitiko ikuspegia



III. Eranskina

Bibliografía

© Ihohe, S.A. – Enero 2011

PRIMERA EVALUACIÓN del estado de conservación de los de interés comunitario en el País Vasco

- ASKASIBAR MIREN (Paisaia, S.L.). *La integración del paisaje en el planeamiento municipal*. Sustrai 84
- ASKASIBAR BEREZIARTUA, MIREN 2013 *Landa eremu atlantikoen paisaia - balioak: oraina eta geroa. Eskualdeko txostena*. Goierri GOIMEN Landa Garapen Elkarte L.G.: SS-1335-2013
- BUREL, F y BAUDRY, J.(2002) *Ecología del paisaje*. Mundi-Prensa. Madrid.
- CABALLERO, JV. y ZOIDO, F (2008), *Formación y desarrollo de una línea de investigación. La dimensión paisajística de los conjuntos arqueológicos, Cuadernos Geográficos*, nº 43, Universidad de Granada, págs. 181-199.
- ERREKONDO, JAKOBA (2009). *Zerain, Paisaje Cultural*. Revista Ambienta
- ESPAÑOL ECHÁNIZ, IGNACIO MIGUEL; CRUZ PÉREZ, LINAREJOS (2009) *El paisaje, de la percepción a la gestión*. Editorial Liteam
- FORMAN, R.T.T., 2004. *Mosaico territorial para la región metropolitana de Barcelona*. Ed.Gustavo Guili, S.A. Barcelona. 150 pp
- GARCÍA GARCÍA, MIRIAM; DELGADO ORUSCO, EDUARDO (2010); *Guía de Integración Paisajística de los Polígonos Industriales y Parques Empresariales de Cantabria*. Primavera Promotor: SICAN,S.L
- GARMENDIA ALTUNA, JOSEBA; GARCÍA MENDIZABAL, YOANA; MITXELENA LARRAÑAGA, ANAÏS; OREJA GUTIÉRREZ, LEIRE AZPIROZ MURUA, MARI (2010). *Zerain Udalerriko ondare naturalaren kontserbazio egoeraren azterketa eta kudeaketa plana (Aizkorri-Aratz parkeari dagokion eremuan)*. Aranzadi zientzia elkarte. Donostia.
- IHOBE (2010) *Los beneficios de proteger y cuidarla biodiversidad del planeta*.
- IHOBE (2011) *Primera evaluación del estado de conservación de los hábitats de bosque de interés comunitario*. Monografía 09
- IKT; PAISAIA (2005) *Catálogo Abierto De Paisajes Singulares Y Sobresalientes De La Capv*. Gobierno Vasco. Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio. Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental
- Munibe (Antropología-Arkeología) 7. eranskina (1990). Donostia. ISSN 0027 - 3414
- Munibe (Antropología-Arkeología) 15. eranskina (2002). Donostia ISSN 1132-2217
- NOGUÉ, JOAN; PUIGBERT, LAURA; BRETCHA, GEMMA (EDS.) (2009). *Ordenació i gestió del paisatge a europa*. Olot: observatori del paisatge de catalunya. (plecs de paisatge; eines; 2). isbn: 978-84-613-5010-0.
- NOGUÉ, JOAN; PUIGBERT, LAURA; SALA, PERE; BRETCHA, GEMMA (eds.) (2010). *paisatge i participació ciutadana*. Olot: observatori del paisatge de catalunya; barcelona: direcció general de participació ciutadana del departament d'interior, relacions institucionals i participació ciutadana de la generalitat de catalunya. (documentació; 1). isbn: 978-84-614-0248-9
- NOGUÉ, JOAN; PUIGBERT, LAURA; BRETCHA, GEMMA (eds.) (2009). *indicadors de paisatge. reptes i perspectives*. olot: observatori del paisatge de catalunya; barcelona: obra social de caixa catalunya. (plecs de paisatge; eines; 1). isbn: 978-84-613-1327-3

- NOGUÉ, JOAN; PUIGBERT, LAURA; SALA, PERE I BRETCHA, GEMMA (2010). *Paisatge i participació ciutadana* ISBN: 978-84-614-0248-9
- NOGUÉ, JOAN; SALA, PERE (2006). *Prototipo de catálogo de paisaje bases conceptuales, metodológicas y procedimentales para la elaboración de los catálogos de paisaje de Cataluña*. Observatori de paisatge.
- PASCUAL, JUAN Aº; RECATALÁ, LUIS; SÁNCHEZ, JUAN; BELENGUER, VICENTE; ARNAU, EVA. *Análisis del paisaje como herramienta de gestión territorial. Aplicación al área metropolitana de castellón (españa)*. Centro de Investigaciones sobre Desertificación (CIDE)
- PÉREZ GONZÁLEZ, LIDIA; MARTÍ VARGAS, JOSÉ R. *Estudio de la fragilidad del paisaje como una herramienta para el análisis de la ordenación ambiental del territorio*.
- SALA, PERE; PUIGBERT, LAURA I BRETCHA, GEMMA (2015). *La planificació del paisatge en l'àmbit local a Europa* ISBN: 978-84-617-3805-2
- ZOIDO NARANJO, F. (1999): *El paisaje en la ordenación del territorio. Apreciaciones conceptuales y metodológicas para aplicaciones en España*, en seminario de medio ambiente, fundación Duques de Soria, Soria 12-16 de julio de 1999

BESTELAKO DOKUMENTU ETA PLANGINTZAK

- Catàleg de Paisatge de Catalunya
- Convenio Europeo del Paisaje. Textos y comentarios (2007), Ministerio de Medio Ambiente. Madrid.
- Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 - Programa Marco Ambiental 2002-2006
- Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren Aurreproiektua.
- PAISAIAREN EUROPAKO HITZARMENA (Florentzia, 2000.X.20)
- Plan de Acción Territorial de Protección de la Huerta de Valencia
- Plan de Gestión del LIC Ordunte. Basoinsa SL eta Bizkaiko Foru Aldundia

WEB ORRI INTERESGARRI BATZUK

- <http://www.aranzadi.eus/>
- <http://www.catpaisatge.net/cat/observatori.php>
- http://www.coe.int/t/dg4/cultureheritage/heritage/Landscape/default_en.asp
- <http://www.eustat.eus/>
- <http://www.geo.euskadi.eus/s69-15375/eu>
- <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-home/es/>
- <http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/y47aIntegraWar/PUConsultaController/listaResultados?pageSelected=&idioma=&filtroTextolibre=0&textolibre=&filtroPbltitulo=0&pbltitulo=&filtroPblano=0&pblano=&txtProvinciaPub=Gipuzkoa&provinciaPub=20&txtMunicipioPub=Zerain&municipioPub=026>
- <http://www.mma.es/portal/secciones/biodiversidad/>
- <http://www.paisajeyterritorio.es/>
- <http://www.zerain.com/>

ZERAINGO UDALAK LANDU ETA SUSTATUTAKO DOKUMENTUAK:

- PROYECTO DE MEJORA FORESTAL "ZONA MINERA" AYTO. DE ZERAIN 2.004 URTEA
- PROYECTO DE REHABILITACIÓN DEL PAISAJE CULTURAL DE LAS MINAS DE AIZPEA EN ZERAIN. GIPUZKOA 2004. URTEA
- AIZPEAKO MEATEGIA KULTUR PAISAIA BERRESKURATZEA HURBILKETARAKO AUKEAK. PRODUKTU TURISTIKO BERRIA SORTU ETA SEINALIZATZEA . 2005 URTEA
- AIZPEAKO MEATEGIA. KULTUR ETA NATUR PAISAIA BERRESKURATU ETA BABESTEA AIZPEAKO MEATEGIA ETA AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALEKO EKOSISTEMEN ANIZTASUN IRAUNKORRA BERMATUAZ 2007. URTEA
- ESTUDIO HISTÓRICO ARQUEOLÓGICO DEL COTO MINERO DE AIZPEA (ZERAIN) EN LA ZONA DE PRESUNCIÓN ARQUEOLÓGICA LISTORMENDI -OTAÑO. 2008. URTEA
- ZERAINGO AIZPEAKO MEATEGIKO MULTZO MONUMENTALEKO PLANGINTZA ZUZENTZAILEA . 2009. URTEA
- ZERAIN UDALERRIKO ONDARE NATURALAREN KONTSERBAZIO EGOERAREN AZTERKETA ETA KUDEAKETA PLANA AIZKORRI-ARATZ PARKEARI DAGOKION EREMUA 2010EKO MAIATZA

- BASOA HERRIAREN ETORKIZUNA. BASOKO BIOMASA HERRIAREN BEHAR ENERGETIKOAK ASETZERA BIDERATZEKO BEIZAMA ETA ZERAINERAKO PROIEKTUA. 2010 URTEA
- ZERAINGO LASURTEGI BAILARA ETA BERTAN AURKITZEN DIREN HEZEGUNEEN LANDAREDIA, FLORA ETA FAUNA HERPETOLOGIKOAREN AZTERKETA 2012KO UZTAILA
- ZERAINGO BASALTEGIKO HEZEGUNEAREN HIDROGEOLOGIA IKERKETA 2012 URTEA
- ZERAINGO LUR FUNTSA LANDA GARAPEN JASANGARRIAREN ETORKIZUNA. 2013. URTEA
- AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALEKO ETA LASURTEGI HEZEGUNEKO BIODIBERTSITATEA HANDITZEKO EGITASMOA 2008-2015--- ETENGABE
- ZERAIN PAISAIA KULTURALA
- GAZTA ETA SAGARDOAREN MENDIA. 2014 URTEA